

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA

4. DBH

Irakaslearen gidaliburua



erein

Euskal Hizkuntza eta Literatura

4. DBH

Irakaslearen gidaliburua

Kepa **Larrea**

Aintzane **Etxebarria**

Julian **Maia**

Urtza **Garay**

Hiart **Legarra**

Julene **Maia**

Lur **Gallastegi**

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo Cedrera (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak onetsia (2016- IV-20)*

Maketazioa: IPAR S.L. arte grafikoen tailerra. Donostia

Azala: Iván Landa

© Kepa Larrea, Aintzane Etxebarria, Julian Maia, Urtza Garay,
Hiart Legarra, Julene Maia, Lur Gallastegi

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-075-5

L.G.: SS 643-2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu

Zubillaga industrialdea 9, 20560 Oñati

T 943 78 33 09 F 943 78 31 33

e-mail: gertu@gertu.net

Aurkibidea

1. Ikasmaterialaren ezaugarriak	5
2. Ikasmaterialaren eduki-segida	7
3. Dagokion curriculum-dekretuarekin, diseinuarekin edota gainerako orientabideekin duen lotura	9
4. Ikasmaterialaren beraren xedea eta izaera	11
5. Helburuak	12
6. Metodologia	14
7. Ebaluazioa	15
8. Nori zuzentzen zaion	18
9. Erabilera modua	18
10. Zer euskarritan argitara emango den	19
DBHko 4. mailako unitateen eskema	20
1. unitatea: Hitzekin jolasean	23
1. Testu mota. Olerkia	23
2. Hizkuntza-ekintzak. Gregeriak, idazkera automatikoaren teknika, kaligramak	27
3. Ulertu. Abesti egindako olerkiak entzun eta ulertu	29
4. Hizkuntza-ezaugarriak	31
Egitura bereziak: Baliabide erretorikoak	31
Lexikoa: Zenbait figura erretoriko	39
Morfosintaxia: Aditz trinkoak	40
Munduko hizkuntzak eta kulturak. Europa: katalana	43
5. Sortu. Abesti berri bat sortu	44
Ebaluazioa. Zer ikasi dut?	46
2. unitatea: Haltzak ez du bihotzik ez gaztanberak hezurrik	47
1. Testu mota. Baladak	47
2. Hizkuntza-ekintzak. Baladen teknika bereziaren azalpena	51
3. Ulertu. Balada entzun/ikusi eta ulertu	59
4. Hizkuntza-ezaugarriak	62
Egitura bereziak: errepikapenak, paralelismoak, antitesiak, elipsiak eta interjekzioak	62
Lexikoa: Baladak	64
Morfosintaxia: Ahoskera-arauak	66
Munduko hizkuntzak eta kulturak. Europa: italiara	67
5. Sortu. Balada bat sortu eta RAP eran errezipitatu	72
Ebaluazioa. Zer ikasi dut?	73
Hizkuntza-gaitasuna (1. ebaluazioa)	74
Aukera anitzeko galderak	74
Gure Euskara hobetzen (1. ebaluazioa)	78
Lehenengo ebaluazioko proiektua	84
Irakurketa	84
3. unitatea: Zer da basoko zurrumurru hori?	85
1. Testu mota. Fabula/alegia	85
2. Hizkuntza-ekintzak. Alegietako egitura, pertsonaiak, gaiak, asmoa, azken irakaspena	88
3. Ulertu. Alegia bat ikusi/entzun	91
4. Hizkuntza-ezaugarriak	92
Egitura bereziak: Etopeia, prosopografia eta prosopopeia	92
Lexikoa: Alegiak. Esaera zaharrak	98
Morfosintaxia: Itzulpenak egiteko orduan kontuan hartu beharreko zenbait desegokitasun eta kalko oker	99
Munduko hizkuntzak eta kulturak. Europa: errusiera	101
5. Sortu. Sortu alegia baten gidoia eta antzeztu	105
Ebaluazioa. Zer ikasi dut?	105

4. unitatea: Baiezka eta ezezka...	107
1. Testu mota. Esketxak	107
2. Hizkuntza-ekintzak. Umorea adierazteko erak	111
3. Ulertu. Esketxak ikusi/entzun eta ulertu	113
4. Hizkuntza-ezaugarriak	115
Egitura bereziak: Esketxa Irratian: Elkarrizketa lekuak eta pertsonaiak deskribatzeko	115
Lexikoa: Esketxak, zinema	120
Morfosintaxia: Menderakuntzan egiten diren ohiko akatsak	123
Munduko hizkuntzak eta kulturak. Europa: portugesa	124
5. Sortu. Sortu eta grabatu esketxa	128
Ebaluazioa. Zer ikasi dut?	128
Hizkuntza-gaitasuna (2. ebaluazioa)	129
Aukera anitzeko galderak	129
Gure Euskara hobetzen (2. ebaluazioa)	134
Bigarren ebaluazioko proiektua	140
Irakurketa	140
5. unitatea: Zer irakurri, horretaz idatzi!	141
1. Testu mota. Literatura-testu baten iruzkin literarioa	141
2. Hizkuntza-ekintzak. Liburu bati buruz esan eta idatz daitekeena. Iruzkinaren antolaketa, zatiak, adierazi beharrekoa...	143
3. Ulertu. Liburu baten aurkezpena entzun eta ulertu	148
4. Hizkuntza-ezaugarriak	150
Egitura bereziak: Erregistro motak: formala, espezifikoa...	150
Lexikoa: Komunikazio-egoera, igorlea, hartzailea, kanala...	153
Morfosintaxia: Estilo-arazoei aurre egiteko zenbait gomendio	154
Munduko hizkuntzak eta kulturak. Afrika, Asia: arabiera	156
5. Sortu. Testu liriko baten oinarritutako iruzkin literarioa sortu	159
Ebaluazioa. Zer ikasi dut?	159
6. unitatea: Joan eta etorri, kapela gorri!	161
1. Testu mota. Bidaia-kontakizuna	161
2. Hizkuntza-ekintzak. Deskribapenaren atalak eta teknikak	163
3. Ulertu. Bidaia baten berri ematen duen dokumentala, pelikula... entzun eta ulertu	166
4. Hizkuntza-ezaugarriak	167
Egitura bereziak: Lekuak deskribatzean nola adierazi kokapena, klima, biztanleria, azalera, hizkuntzak...	167
Lexikoa: Bidaia	170
Morfosintaxia: Zenbait aditzen zalantzazko erregimena (gonbidatu, itxaron, deitu, lagundu...)	171
Munduko hizkuntzak eta kulturak: Asia: txinera	173
5. Sortu. Eskolan/gurasoekin/lagunekin... egindako bidaia baten kontakizuna egin	176
Ebaluazioa. Zer ikasi dut?	176
Hizkuntza-gaitasuna (3. ebaluazioa)	178
Aukera anitzeko galderak	178
Gure Euskara hobetzen (3. ebaluazioa)	182
Hirugarren ebaluazioko proiektua	189
Irakurketa	189

1. Ikasmaterialaren ezaugarriak

Hizkuntza ahozko nahiz idatzizko komunikaziorako tresnarik garrantzitsuena den heinean, DBHko 3. mailako ikasleek euskaraz izan beharreko komunikazio-gaitasunaren garapenean lagungarri izatea da material honen xedea. Komunikazio-gaitasuna kontzeptu abstraktua eta orokorra izanik, berran hartzen ditu beste gaitasun batzuk, hala nola, linguistikoa, soziolinguistikoa eta pragmatikoa (Europako Kontseilua). Gazteek, hizkuntza-edukiez gainera, norekin edota norentzat hitz egiten ari diren, eta zer helbururekin, izan behar dute kontuan; izan ere, jakin egin behar dute bereizten ezin diela modu berean hitz egin irakasleari eta lagunei.

Komunikazioa testuinguru anitzetan agertzen da: eskolan, zineman, parkean, lagunentzako, baserrian, zoon, azokan edo mendian, besteak beste. Ikasleak eremu horietan izan beharreko komunikazio-gaitasuna modurik zabalenean lantzen ahalegindu gara; horretarako, kontu handiz aukeratu ditugu jorratu beharreko gaiak, ahalik eta errealean izan daitezkeen, eta idatzizko nahiz ahozko komunikazioan landu ditugu aipaturiko testuinguruetan erabili beharreko hizkuntza-baliabideak.

Aurkezten dugun ikasmaterial honen bidez, aldatzea proposatzen dugu ohiko hizkuntza-ikuspegia eta -metodologia. DBHko mailetan, sarri askotan, modu memoristikoa eta ikuspuntu estrukturalistetatik abiatu da hizkuntza eta literaturaren irakaskuntza, hizkuntzaren erabilera erreala eta ikastetxearen helburu sozializatzailea alde batean utzirik. Hauexek dira ikasmaterial honen alderik eta ekarpenik aipagarrienak, labur bildurik:

- a) Hezkuntza-curriculum, abiapuntua.** Hemen aurkezten ditugun gaiak ez dira aldaezinak. Aitzitik, zenbat eta ahalmen handiagoa eman ikasleei gaia aukeratzeko, hainbat eta interes eta motibazio handiagoaz egingo dituzte irakasleak proposatutako jarduerak. Ikaslea bere ikaskuntzaren protagonista sentitzea lortu nahi da. Testu edo diskurtso motei dagokienez, *hizkuntzen curriculum* proposatutako erabilera-eremu sozialak eta eremu horiei dagozkien testu motak lantzen dira, adibidez, eskabidea, arautegia, egunkaria, inkesta, kontzeptu-mapak, grafikoak, biografiak eta txostenak, besteak beste.
- b) Hizkuntza-ikuspegi diskurtsiboa.** Ikuspegi honek posible egiten du azaltzea hizkuntza bateko hiztunek (bai jatorrizkoek, bai ez-jatorrizkoek) hizkuntza hori nola ulertu eta erabili behar den testuinguru jakinetan eta ekintza linguistikoki jakin eta sozialetan. Horregatik, *egoera errealean* oinarriturik daude testuliburu honetan ikasleei aurkezten zaizkien *testuak*.
- c) Proiektuen bidezko metodologia.** Proiektu honen bidez, ikasleek egiazko esperientzia izatea testuinguru jakinetan lortu nahi dugu. Arazo edo egoera bat identifikatzetik eta formulatzetik abiatzen da ikaskuntza-irakaskuntza prozesua, eta, horren gainean, prozesuan zehar, hainbat jarduera, ataza eta hausnarketa planteatu ditugu. Proiektuak ezinbesteko talaiak dira *komunikazio-egoerak* irudikatzen eta, modu horretan, testuinguru errealean batean koka daiteke ikasleen ekoizpena.
- d) Aniztasunaren printzipioa.** Ikasle batzuek hezkuntza-premia bereziak izan ohi dituzte, eta jatorri eta maila ezberdinetako ikasleak izaten dira ikastetxeetan, gainera, gaurko gizarte globalizatuan. Hortaz, jarduera eta *ataza laburrak eta asko* aukeratu ditugu ikasleek prozesu osoa kontrola dezaten, ikasleen ezaugarri ugarien beharrezanean ahalik eta ondoen egokitzen. Irakaslearen esku gelditzen da material hau guztia haren ikasleek lehendik dakitenari, hizkuntza mailari eta interesei egokitzea. Horretarako, era askotako diskurtsoak eta testu motak aurkezten ditugu. Hortaz, ezein testuliburuk Euskal Herriko ikastetxe eta ikasle guztiei modu berean erantzun ezin dienez (eta

proposatzen dugun honek ere ez), irakasleek malgutasunez eta askatasunez joka dezakete, testu liburu honek proposatzen duen hurrenkerari nahitaez jarraitu gabe, beti ere beren ikasleen beharrianak eta interesak lehenetsiz.

- e) *Ikaslea, protagonista.*** Edozein formazio-jardueratan ikaslea da protagonista: hark beretik jartzen badu, ikasiko du; bestela ez. Beretik jartzeko, ordea, motibazioa behar du, eta, ondotxo dakigunez, motibatuta sentitzeko biderik eraginkorrena bere burua martxan jartzen laguntzea da, gauzak egitera bideratzea, formazio-prozesuaren egilekide bihurtzea, benetako protagonismoa hartzea, alegia. Ikuspuntu horretatik, ezinbesteko tresnatzat jo dugu sekuentzia didaktiko bakoitzaren amaieran proposaturiko proiektu soziala, zeinak sekuentzia horretan ordura arte jorratutako atal guztiak biltzen baititu. Beraz, ahal dela, ikasgelara mugatu beharrean, ikasgelatik irten eta lana eskolako edo herriko proiektuetara zabaltzea izango da helburuetariko bat. Gauza bera gertatuko da informazioa jasotzean; hau da, ahal dela, herriko pertsonak erabiliko dira informatzaile gisa.
- f) *Euskal Herriko eta nazioarteko kulturaren uztartua.*** Euskal Herriko kulturatik abiatuta beste batzuetara hedatzen da. Sekuentzia guztietan zehar gure kulturari dagozkion ezaugarriak lantzen dira (bertsolaritza, sukaldaritza, literatura, era askotako ekitaldiak...). Baina horrek ez du esan nahi euskal kultura kanpoko eraginetatik libre mantentzen saiatu behar dugunik, edota ahalegin berezian bereizten saiatu behar dugunik gurea ez dena. Zentzu horretan, esan genezake, euskal gauzen multzoa baino areago, euskaldunok gauzei begiratzeko dugun modua dela euskal kultura. Eta ez soilik Euskal Herriko gauzei, baita mundukoei ere.
- g) *Zehar-lerroak.*** Aukeratutako irakurgeta edo bideratutako solasaldiek gure gizarteko zenbait errealitate hobeto ulertzen laguntzen diote ikasleari (pertsonen aniztasuna, pentsaeren aniztasuna...). Ildo horretatik, neska-mutilen arteko oreka ere zaindu da (irakurketa-liburuen aukeran, gaien proposamenetan edo irudietan, besteak beste). Hona hemen esandakoaren zenbait adierazle: neskak eta mutilak dira proposatutako irakurketa-liburuen idazleak edo protagonistak; *curriculum vitae* batean agertzen diren lanbideek, berdintasunaren printzipioan oinarriturik, ez dute generoen araberako bereizketarik egiten (gizonezkoen/emakumezkoen usteko lanak gaitzetsiz). Era berean, talde-lana proposatzen dugu, ikasleek proiektu komun batean parte hartzen ikas dezaten, besteen ideiekiko errespetuzko jarrera azaldu eta zeregin komun batean norbanakoaren erantzukizuna gara dezaten.
- h) *Edukien progresioa.*** Testu bat produzitu aurretik, eduki jakin batzuen jabe da ikaslea (zerbait daki xede den gaiari buruz), eta testuinguru jakin batean daude kokatuta diskurtsoa eta diskurtsoaren sortzailea (norbaiti zuzentzen zaio, asmo jakin batekin). Aurreko ezagupen horiek kontuan hartu ditugu ikasleekin lantzeko testuak aukeratzeko irizpideak zehazteko. Hortaz, proposaturiko testuen ekoizpen-mailak zehaztu dira, eta testu-maila horiek izan dira edukien progresioa markatu duten irizpideak: testuinguruaren ezaugarriak, testu-antolatzaileak, koherentzia, kohesioa eta modalizazio-eragiketak (ikus “2. Ikasmaterialaren eduki-segida”).

2. Ikasmaterialaren eduki-segida

(Ikus 1. eranskina: DBHko 4. mailako unitateen eskema)

a) *Komunikazio-gaitasuna lantzeko atala:*

0. Izenburua
1. Testu mota
2. Hizkuntza-ekintzak
3. Ulermena

b) *Hizkuntza-gaitasuna lantzeko atala:*

4. Hizkuntza-ezaugarriak
 - Egitura bereziak
 - Lexikoa
 - Morfosintaxia
 - Euskalkiak

c) *Proiektua lantzeko atala:*

5. Sortu

d) *Ebaluazioa (Zer ikasi dut?: kontrol-zerrenda)*

e) *Gehigarriak*

- Amaierako proiektua
- Irakurketa
- Hizkuntza-gaitasuna (berrikusi/sakondu)

Sekuentzia didaktiko guztiek hiru atal nagusi dituzte: *komunikazio-gaitasuna lantzeko atala*, *hizkuntza-gaitasuna lantzeko atala* eta *proiektua lantzeko atala (sortu)*.

Sekuentzia bakoitzaren amaieran *ebaluazio* bat gehitu dugu, *kontrol-zerrenda* baten bidez ordura arte egindako prozesua eta lortutako emaitzak erregularizatuko dituena. Horrek ez du esan nahi atal bakoitzean aipaturiko gaitasunak baino ez direla landu. Aitzitik, komunikazio-gaitasuna izan da sekuentzian zehar izan dugun erreferentzia nagusia; baina metodologiaren aldetik, sekuentzia hobeto antolatzearen, hiru zati hauek izan dira abiaburu nagusiak: a) Komunikazio-gaitasuna lantzeko atala, b) Hizkuntza-gaitasuna lantzeko atala, c) Proiektua lantzeko atala.

Aurrekoetz gainera, bi unitatez behin (hots, hiruhileteko bakoitzaren bukaeran, hiruhileko bakoitzean unitate bi landu baitaitezke), *proiektu berezi bat* eta *irakurketa-atal* bat gehitu ditugu, aurreko sekuentzien osagarri.

Aipatutako 1. eranskin horretan (1. eranskina: DBHko 4. mailako testuliburua), atal eta azpiatal guztiak edukiz janzteaz gainera, orri-kopurua eta eskoletan lantzeko behar den denbora ere ezarri ditugu. Modu horretan, denboraren erreferentzia argi bat izango dute irakasleek, beren programazioetarako ezinbestekoa dena.

a) *Komunikazio-gaitasuna lantzeko atalak:*

Sekuentzia guztien lehenbiziko orrialdeetan aurkezpen-testuak daude; gainerako orrialdeetan lantzen den gaian barneratzeko balio dute, eta liburuko hainbat pertsonaiaren arteko elkarrizketa

edota testu jarraitua izan daitezke. Elkarrizketak idatziak direnean, DVDko grabazioen bidez ahoz ere entzun daitezke, eta zenbaitetan baita irudiz ikusi ere.

Hasiera hori gaiaren sarbidea da, eta proposaturiko testuen bidez ikaslearen motibazioari eragin eta jakin-mina piztu nahi dugu. Sarrera horrek ikaslearen aurre-jakintzak azalarazteko ere balio du.

Atal honetan, hasierako testuen ulermena lantzen da. Testuak gaiaren araberakoak izango dira eta formatu eta era askotakoak izan daitezke: narrazioa, deskripzioa, albistea, elkarrizketa... Testu idatziek behar dituzten irudiak, grabazioak eta osagarriak izango dituzte. Hainbat teknika erabili dira egin beharreko ariketarako, batik bat ikasleen motibazioa areagotzeko: informazioa osatu irakurritakoaren arabera, irakurritakoa hausnartu, galdera-erantzunak bilatu, erantzun zuzena aukeratu, testuak berritzeko proposamenak egin, eta abar. Testuaren beraren ezaugarriak ere lantzen dira zenbait ariketaren eta jardueraren bidez.

Komunikazio-gaitasuna lantzeko, honako azpiatal hauetan banatuta dago atal hau:

- *Izenburua*: esku-liburua sei unitatetan antolatu dugu, eta bakoitzaren izenburuak gai nagusia kokatzen laguntzen du. Hona adibide batzuk: “Entzun duzu...?” (albistea), “Han ere txakurrak oinutsik” (hainbat herrialderen egoera eta bizimodua), “Ingurumena” (zaindu beharreko altxorra)...
- *Testu mota (eremua)*: koadro sinoptikoa, hitzaldi publikoa, gida turistikoa...
- *Hizkuntza-ekintzak*: erlazionatzea eta kategorizatzea, ideiak antolatzea (kausa/ondorioa, sekuentziala, konparatiboa, galdera/erantzuna, definizioa/adibidea)...
- *Ulermena*: albistea entzun/ikusi, irratsaio bateko iragarkia (mendi-martxa, ipuin-lehiaketa), Euskal Herriko tokiei buruzko azalpenak entzun/ikusi...

b) *Hizkuntza-gaitasuna lantzeko atalak*:

Honako atal hauetan landuko da hizkuntza-gaitasuna (hizkuntza-ezaugarriak):

- *Egitura bereziak*. Atal honetan, hizkuntzaren alderdi pragmatikoari ekin diogu, eta testuaren egokitasuna egoera jakinetan lantzeko proposamenak egin ditugu. Adibidez: modalizazioa (beharrizana, balorazioa, ziurtasuna), elementu paralinguistikoak azalpen-testuetan, limurtzeko, konbentzitzeko hizkera...
- *Lexikoa*. Sekuentzia bakoitza gai jakin baten ingurukoa denez, gai horri dagokion hiztegia lantzen da, eremu semantiko jakinetarako baliabideez hornitzeko ikaslea. Horretarako, irudietara eta euskal kulturaren ditugun bestelako baliabide entretenigarrietara jo da maiz; esaterako, asmakizunak, logika-jokoak eta letra zopak erabili dira. Hona zenbait gai: kazetaritza, ingurumena, medikuntza, turismoa...
- *Morfosintaxia*. Ahozko nahiz idatzizko hizkuntza egokirako ezinbestekoak diren gramatika-arauak ezagutzeko prestatu da atal hau. Gramatika-egitura sinpleenetatik abiatuta, egitura konplexuenerako bidea egin da. Adibidez: erlatibozko perpausak, morfema adjektibalak (-(e)n, -tako, -bait-, zein, non); arrazoiak aditzera emateko elementuak (bait-, -(e)nez gero); ordena markatua eta galdegaiaren legeak; atzerakarga arintzea...
- *Euskalkiak*. Ikasleek euskararen aldaera diatopikoen eta, aldi berean, euskararen osotasunaren berri izan dezaten bideratu da atal hau; horrela nor bere inguruko euskaraz, besteenaz eta euskara batuaz kontzientzia har dezake. Euskalkien ezaugarri eta ñabardura guztiak landu ezin direlarik, honako hauek landuko dira, besteak beste: aditz laguntzailea bizkaieraz (orainaldia), gipuzkera: zenbait hitz berezi, euskara nafar-lapurttarren zenbait ezaugarri...

c) *Proiektua lantzeko atala (Sortu):*

Bukaerako atal hauetan, sekuentzian zehar ikasitakoa praktikara eramango dute ikasleek, ahozkoa nahiz idatzia lantzea eskatzen duen proiektu baten bidez. Ahozko ekoizpenean ez ezik, garrantzitsua da idatzizkoan ere hizkuntza ondo erabiltzea, eta, horregatik, aurreko atalaren osagarri gisa, proiektu berezi bat proposatzen da, bost urratsetan, sekuentzian zehar ikasitakoa idatziz eta ahoz adierazteko. “Sortu” deritzon atal honetan testu osoak sortuko dituzte ikasleek. Adibidez:

- Ahozko hitzaldi bat sortzea: “Errealiti” eztabaida.
- Iragarki-atari bat sortzea, Interneteko plataforma bat erabiliz.
- Gida turistiko bat sortzea.
- ...

d) *Ebaluazioa:*

Atal bakoitzaren amaieran, ebaluazio-atal bat gehitu dugu, kontrol-zerrenda baten bidez ordura arte egindako prozesua eta lortutako emaitzak erregularizatuko dituen. Horrek ez du esan nahi atal bakoitzean aipaturiko gaitasunak baino ez direla landu. Aitzitik, komunikazio-gaitasuna izan da sekuentzian zehar izan dugun erreferentzia nagusia; baina metodologiaren aldetik, sekuentzia hobeto antolatzearen, hiru zati horiek izan dira abiaburu nagusiak.

e) *Gehigarriak:*

Aurrekoez gainera, bi unitatez behin (hots, hiruhiletako bakoitzaren bukaeran) landuko den proiektu berezi bat, irakurketa-atal bat eta hizkuntza-gaitasuna sakontzera bideratutako hiru azpiatal gehitu ditugu, aurreko sekuentzien osagarri.

- Amaierako proiektua
- Irakurketa
- Hizkuntza-gaitasuna (berrikusi/sakondu)

Aipatutako 2. eranskin horretan (1. eranskina: DBHko 4. mailako unitateen eskema), hiru atal horiek edukiz janzteaz gainera, aintzat hartu ditugu atal eta azpiatal bakoitzaren orri kopurua eta eskoletan lantzeko behar den denbora ere. Modu horretan, denboraren erreferentzia argi bat izango dute irakasleek, beren programazioetarako ezinbestekoa dena.

3. Dagokion curriculum-dekretuarekin, diseinuarekin edota gainerako orientabideekin duen lotura

2007an Euskal Autonomia Erkidegorako Curriculum Dekretua argitaratu zen, eta han ezartzen dira hizkuntzaren irakaskuntzaren oinarriak eta jarraibideak, ahozko hizkuntzarenak barne. 2010ean dekretu hura berritu eta egokitu zen [97/2010 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena (175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa)].

Hezkuntzak lortu beharreko helburuak zein diren zehazten da aipatutako dekretu horietan. Bertan biltzen dira orobat landu beharreko edukiak eta helburu orokorrak. Era berean, curriculum horrek

eragozten digu gizarteak dituen ezintasun eta ajeen ispilua eta eredu erreplikatzailerak bilakatzea hezkuntza.

Dekretuen irizpideei jarraituz, hortaz, DBHko eskuliburu hau euskal hizkuntzaren arloan oinarrizko gaitasunak eskuratzeko egindako ekarpena da. Oinarrizko gaitasunak testuinguru edo egoera askotarikoek eskatutako jakintza, trebetasun, jarrera eta balioen konbinazioa dira, eta Oinarrizko Hezkuntzako ikasle guztiek eskuratu behar dituzte gaitasun horiek, bai pertsona gisa garatzeko, bai herritar aktibo izateko eta gizarteratzeko. Helburuak bezala, gaitasunak ere edukien bidez lantzen dira.

Hizkuntzak curriculumaren oinarrizko gaitasun guztiak garatzeko balio du, tresna ezin hobea baita komunikatzeko, mundua irudikatzen, gizartean txertatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko.

Hizkuntzaren bidez gizarteko jarduerak eskatutako harremanak behar bezala taxutzea da hizkuntzaren curriculumaren helburua. Izan ere, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzea da hizkuntzak ikastearen helburu nagusia, hau da, era guztietako testuak ulertzea eta sortzea, etapa bakoitzaren komunikazio-egoeratarako egokituak, era koherentean, kohesionatuen eta zuzenean. Komunikatzeaz gainera, hizkuntzaren bidez mundua irudikatzen dugu, horretarako tresna ezin hobea baita. Pentsamendua eta hizkuntza bereizezinak dira, hizkuntza baita pentsamenduaren euskarria. Pentsamenduaren eta hizkuntzaren bidez jakintza eraikitzeak harreman zuzena du ikasten ikasteko gaitasunarekin. Hizkuntzak, jakintza finkatzeaz eta iraunarazteaz gainera, posible egiten du era sistematikoan eta erreplikatu jakintzara iristea, eta bidea ematen du bestelako munduak ezagutzeko, gogoeta egiteko, eta nor bere kabuz ikasteko. Horrez gainera, jakintza ordenatzea eta jarduna planifikatzea, norberaren eta inoren esperientziaz gogoeta egitea eta arrazoibideak aztertzea ahalbidetzen dio hizkuntzak gizabanakoari. Horiek guztiak, bestalde, baliagarriak dira beste arloetako gaitasunak garatzeko ere; izan ere, komunikazio-gaitasuna izatea beharrezkoa da beste arloetako datuak eta argudioak argi interpretatzeko eta adierazteko.

Hizkuntzari esker garatzen da zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna, hau da, mundua interpretatzea, mezuak aztertzea, bizimodu bakoitzaren arazoak eta ondorioak zentzuz argudiatzea eta jakintzaren diskurtsoak gelan erabiltzea. Arlo horrek laguntzen du informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna lortzen, bai informazio esanguratsua aurkitzen, bai ahozko zein idatzizko testuak sortzen.

Hizkuntza komunikazio-bitartekoa da, eta, hortaz, oinarrizko osagaia da sozializazio-prozesuetarako eta gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzeko. Bestalde, literatura-obrak irakurri, interpretatu eta balioesteari esker garatzen da giza-kulturarako eta arte-kulturarako gaitasuna.

Halaber, problemak aztertzen eta konpontzen ikastea, planak egitea, erabakiak hartzea, komunikazio-egoera bakoitzean estrategia egokiak erabiltzea esan nahi du hizkuntza erabiltzen ikasteak. Horiek guztiek norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna garatzen laguntzen dute.

Laburbilduz, J. Delorsek UNESCOri egindako txostena oinarri harturik (UNESCO, 1996), lau eremutan antolatzen dira konpetentziak: ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta izaten ikasi. Eta horiek guztiak bideratzeko, oinarrizko tresna da komunikazio-gaitasuna.

Curriculumaren ezarritako printzipioetatik abiatuta eta egungo errealitate soziala aintzat hartuta, arreta berezia eskaini diogu gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lantzeko; batetik, geure inguruan

gero eta etorkin gehiago ditugunez, liburuan zehar hainbat jatorri eta kulturatako pertsonaiak jarri ditugu; bestetik, nesken eta mutilen arteko berdintasuna ere bultzatu dugu.

Komunikazio-ekintzari (irakurketa, idazketa, hizketa) edota eduki linguistikoari erreparatuta, ikasleen mailara egokitutako ariketak aurkeztu ditugu. DBHko ikasleen komunikazio-gaitasuna kontuan harturik, hizkuntza-forma eta bestelako eduki linguistiko asko ezagutuko dituzte beharbada, egunero entzuten edota erabiltzen dituzte-eta. Dena dela, idatziz lantzeko orduan arazoak izan ditzakete, eta, horregatik, hizkuntzaren gaineko hausnarketa eta azterketa kontziente bat bultzatu nahi dugu egitasmo honen bidez. Funtsean, 2010eko curriculumaren orientabideei jarraitu diegu hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzeko:

- Hainbat komunikazio-egoeratan eta -testuingurutan, ahozko eta idatzizko testuak ulertuz edo ekoitziz.
- Hizkuntza eta hizkuntzaren erabilera-arauei buruz gogoeta eginez.
- Hizkuntzaren erabilerarako trebetasunak jasoz eta beste hizkuntza batzuen erabilerara transferituz.

Curriculum Dekretuaren ondorioz, garrantzi handia izan dute gurean ikuspegi testual eta diskurtsiboek, eta hizkuntzaren erabilera errealarari lotutako hurbilbide metodologikoez. Horregatik, ikas-materialaren ezaugarriak azaldu ditugunean (ikus “1. Ikas-materialaren ezaugarriak”) irizpide horiei atxiki gatzaizkie. Hala eta guztiz ere, hizkuntza idatzia izan da, urteetan, hizkuntzen irakaskuntzaren ardatza; jarduera didaktiko gehienak modalitate idatzia lantzerantz bideratuta egon dira eta, sarritan, literatura-ereduetan oinarrituta. Gehienetan, nahiko alboratuta geratu da ahozko hizkuntza; alde batetik, kontzeptua bera ere zaila delako mugatzen, eta bestetik, ez delako erraza zer eta nola irakatsi behar den erabakitzea. Gainera, ahozko hizkuntza lantzea neketsuagoa gerta daiteke ikasleen kopuruarengatik, metodologia-arazoengatik, ebaluatzeko zailtasunengatik, etab.

Hizkuntzaren ikuspegi komunikatibo eta funtzionaletik, ordea, ezinbestekoa da ahozko hizkuntzari ere erreparatzea eta ahozko hizkuntzaren irakaskuntzari ere lekua egitea. Are gehiago, erabilera erreala aintzat hartu behar da, ikasleei komunikazio-egoera errealean jarduten irakatsi nahi izanez gero. Borondate hori aitortzen zen, hain zuzen ere, 2007ko Curriculum Dekretuan, eta 2010ekoan berrezarri egin zen. Curriculum horretan zehazten dira irakaskuntza-prozesuaren bukaeran ikasleek eskuratu behar dituzten gaitasunak eta horretarako baliatu behar diren edukiak, metodologia- eta ebaluazio-irizpideak. Bigarren urrats batean, berriz, testuliburuak edo ikas-materialak dira curriculum-dekretuetan ezarritakoa gelara eramateko baliabiderik garrantzitsuenak. Izan ere, curriculumean aipatzen diren eduki, metodologia eta ebaluazio horiek gehiago zehaztu ditugu proiektu honetan, baita sekuentzia didaktikoen bidez antolatu ere.

4. Ikas-materialaren beraren xedea eta izaera

Aurkezten dugun DBHrako egitasmo honetan biltzen diren ikas-materialen bidez, bi helburu hauek lortu nahi dira nagusiki Euskal Hizkuntza eta Literatura arloan:

- Irakasleen beharrei begiratuz, eta indarrean dagoen curriculumetik abiatuta, metodologia berrietara hurbiltzeko urrats bat egitea.
- DBHko ikasleen beharrei begiratuz, eta curriculum berriko gaitasunetan trebatzeko, proposamen egokiak eta erakargarriak aurkeztea.

Eskolaren eginkizunei begiratuta, berriz, eta ikasleak ardatz harturik, bi hauek izango dira ikasmaterial honen eginkizun nagusiak:

- Ikasleek komunikatzeko eta irudikatzen duten gaitasuna garatzea, ahozkoa nahiz idatzizkoa.
- Ikasleek hizkuntzaren arloan dakartzaten hutsuneak betetzea (hizkuntzaren erabilera zuzena ikasgelara eta bertako eginkizunetara mugatu gabe).

Helburu horiek lortzeko, jakina, irakasleen zeregina erabakigarria izango da. Baina ez dugu ahaztu behar garrantzitsua izango dela hizkuntzaren planteamendu integratzailea egitea, eta, hori lortzeko, beharrezkoa izango dela etapa honetako irakasleen arteko koordinazio estua, ahalik eta planteamendu bateratuena aplikatzeko. Egia da, ordea, planteamendu integral hori gauzatzeko, irakasleek oztupoak izan ditzaketela, ikasleen egoera soziolinguistikoa ez baita homoginoa. Ikastetxe bakoitzean gerta daitezkeen egoera desberdin horiek kontuan hartu beharko dituzte irakasleek, halaber, eskolak programatzeko orduan. Azken batean, hezkuntza- eta hizkuntza-proiektua den egitasmo horretarako, *Euskal hizkuntza eta literatura* liburuaren egileok honako ardatz hauek kontuan hartu ditugu:

- Ikasle euskaldun eleaniztunak hezi.* Egungo gizarte modernoan ikasle euskaldunak mundu modernoko kultura eleaniztunean txertatuak bizi daitezten. Ikuspuntu honetatik, jakina, euskarak berebiziko garrantzia hartzen du, norberaren komunikazio-hizkuntza eta kultura-hizkuntza den aldetik. Eginkizun horretan ezinbesteko garrantzia du eskolak. Zer izango dira bizitzan eskolan hezten ditugun haur eta gazteak? Zer-nolako elebitasun-maila lortuko eta gordeko dute? Ahalik eta gehienak euskal elebidunak eta elebidun orekatuak izatea izan behar genuke helburu.
- Euskararen normalizazioa.* Prozesu honetan, eskolaren erantzukizuna, gainerako gizarte-esparruena bezala, ordezkazina da. Eskola, berez, ez da nahikoa euskararen erabilera bermatzeko, baina eskolarik gabe nekez berma daiteke euskara egungo gizartean. Euskal elebakarrik ez duen euskal gizarte honetan, hizkuntza-atxikimendua oinarritzko elementua da euskararen erabilerari eusteko. Euskaraz egin dezaketenak eta egin nahi dutenak dira praktikan euskaraz egiten dutenak, euskaraz jakitea ez baita aski, hitz egiteko egoera egokirik izan ezean. Ikastetxearen hezkuntza-moldeak lagundu egin behar dio ikasleari hizkuntzaren osagarritasun hori ikusten eta bizitzen. Horrela, zenbat eta aukera gehiago eskaini eskola-inguruneak, orduan eta errazagoa izango da euskalduntze-prozesua eta normalizazioa.
- Aniztasuna.* Euskara nahi dugu, munduaren aniztasunean eragin gura dugulako. Ekologiaren kontzeptua hizkuntzen bizitzara ekarriz, aniztasunean ikusten dugu aberastasuna eta ez uniformetasunean; elkarrekiko errespetuan, oparotasuna. Eraiki nahi den gizarte-ereduaren araberakoa izango da, beraz, euskararen geroa ere. Eta hezkuntzaren bidez hori egunetik egunera egiten ari garen zerbait da, norberarengandik hasi eta ingurunean norabide batean edo bestean eraginez.

5. Helburuak

Curriculumari jarraituz, gure helburu didaktikoak, besteak beste, hurrengo hauek dira: trebetasun guztietan, ahoz nahiz idatziz, testu mota gehienak lantzea, beti ere ikasleen mailara egokituz; hau da, azken batean, komunikazio-gaitasuna era zuzenean garatzea, eta zeharka curriculumean datozen bestelako gaitasunak. Horretarako, ikasleek hainbat gai eta alorretako testuak irakurri eta entzungo dituzte: web-orrialdeetakoak, albistegietakoak, alegietakoak, eta abar.

Aurreko atalean (ikus 3. puntua: “Dagokion curriculum-dekretuarekin, diseinuarekin edota gaine-rako orientabideekin duen lotura”) adierazitako helburuak eta gaitasunak aurrean ditugularik, batez ere irizpide hauek izan ditugu gogoan materialak prestatzean:

- Pertsonak elkarrekin komunikatzeko tresna da hizkuntza.
- Mundua irudikatze bitartekoa ere bada hizkuntza. Horregatik, pentsamenduari eta ezaguerari oso lotuta dago.
- Hizkuntzak literaturaren mundurako abiapuntua ere izan behar du.

Ikasgelan, ikasleak dira hizkuntza komunikazioaren prozesuko protagonista zuzenak, bi ikuspegi-tatik begiratuta: hartzaile modura (irakurketa eta entzumena) eta sortzaile modura (idazketa, elka-rrizketa eta hizketa).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, honako gaitasun hauek lortzea da Euskal Hizkuntza eta Lite-ratura irakasgaien helburua:

1. Era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kri-tikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.
2. Esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko gai izatea, ahoz eta idatziz, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, kontuan izan behar dira hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza-arauak, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.
3. Soziolinguistikaren oinarrizko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskararen erabilera arrunta bermatzeko.
4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioesten dugu.
5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, era guztietako au-rreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.
6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, gogoeta egitea harremanetan dau-den hizkuntzen sistemei buruz, bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko, eta transferentzia negatiboak saihesteko.
7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.
8. Gogoeta egitea norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estrategiak transferitzeko; horrela, norberak ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute ikasleek.
9. Literatura-generoen oinarrizko arauak eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura-testuen eta literatura-asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.
10. Literatura-ondarea balioestea, norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat tes-tuingurutan izandako esperientzia sinbolizatze; horrela, euskal literaturako, inguruan dau-den herrialdeen literaturako eta literatura unibertsaleko ereduak obrak irakurriz eta aztertuz, norberaren kultura-identitatea eraiki ahal izango da.

11. Ereduzko testuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuz, literatura-obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko, eta sentiberatasun estetikoak garatzeko.

6. Metodologia

Sekuentzia didaktikoa da programazioaren ardatza. Sekuentzia didaktikoak eskaintzen dituen abantailak ikusirik, aise geureganatuko dugu programatzeko era. Sekuentzia didaktiko guztiek helburu orokor bat dute, hasieran definitzen dena eta izenburu baten inguruan antolatzen dena. Helburu nagusi horren inguruan beste batzuk antolatzen dira, eta beste helburu horiek lortzeko hainbat hizkuntza-jarduera egin behar izaten dira.

Proiektu honetan proposatzen dugun sekuentzia didaktiko bakoitzean proiektu bat dago adierazita; hau da, bukaeran zer lortu nahi den. Baina horra heltzeko gaitasun eta azpi-gaitasun batzuk landu behar dira, eta baita horiek bete ahal izateko zenbait hizkuntza-jarduera egin ere. Sekuentzia didaktikoetan zehaztu ditugun jarduerak horiek proposatzeko oinarri hauek kontuan hartu ditugu:

a) *Ikasleen maila ezagutu eta hura hartu abiapuntutzat.* Ikasleen maila ezagutzeko hasierako testuak erabil daitezke, eta hortik abiatuta ikasleek egoera errealan oinarritutako jarduerak egin, hausnartu eta konparatu.

b) *Aniztasuna kontuan hartu.* Aukera anitz ematen zaizkio ikasleari, sekuentzietan zehar, ahalik eta hizkuntza-jarduera gehien lantzeko. Aniztasun hori ondoko puntuotan gauzatzen da:

- Hizkuntzaren erabilera: informatu, kontatu, argudiatu...
- Solasean: ikaslea informazioaren hartzaila zein jasotzailea den aldetik.
- Hizkuntza-jarduerak: komunikazio-egoera jakin baten arabera hainbat testu ulertu, garatu, ideia nagusiak atera, laburtu, norberaren gogoeta eta iritzia azaldu, informazioa inferitu, eskemak egin...
- Inguruko hizkuntzak, hizkuntza-erregistroa eta hizkuntza-aldakia kontuan hartu.

c) *Komunikazio-beharrizan errealak kontuan hartu.* Hizkuntza-jardueraz hitz egiten dugunean ikaslearen komunikazio-behar errealak eduki behar ditugu kontuan: zertarako eta nola erabiltzen duten ikasleek hizkuntza. Eta beharrizan horiek identifikatuta, produkzioa hobetu ahal izango da, ikasleek dituzten errakuntza eta hutsuneak bereziki landuz.

Hastapen horiek, jakina, marko teoriko bat dute abiaburu, proiektu hau gauzatzeko kontuan hartu duguna. Marko teoriko hori, aipatutako Curriculumean ez ezik, ikasleen garapen kognitiboa azaltzen duten teorietan eta konstruktibismoan ere oinarritzen da. Besteak beste, laburki, honako ideiak azpimarratu beharra dago:

- Nerabeek aldaketa-garaia bizi dute: itxuran, harremanetan eta pentsamenduan.
- Oinarritzko gaitasun kognitiboen bilakaerak eta jasotako hezkuntzak lotura zuzena dute esperientziekin.
- Ezagutza beti da eraikitze-prozesu baten emaitza: informazio berria jasotzean garrantzi handia dute ikasleek alde aurretik jaso, osatu eta eraiki dituzten ideiek.
- Eskolako ikaskuntzari dagokionez, ezagutza ez da pasiboki hartzen den zerbait. Prozesu aktibo baten barruan kokatzen da.

- Irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuan gertatu ohi diren akatsak beharrezkoak dira ezagutza jasotzeko prozesuan.
- Ikasleak protagonista izan behar du ikaskuntza-prozesuan, ikaskuntza hori bere baitan poliki-poliki eraikitzen joan dadin.
- Arauak ikasteari eta kodeari baino garrantzi handiagoa eman diogu hizkuntzaren erabilerari.
- Komunikabideak eta teknologia berriak gaur egungo komunikazioaren ardatz nagusiak direnez, horien erabilera lehenetsi dugu.
- Bideak eskaini ditugu ikasleak hizkuntzak gizartean duen dimentsioaz jabe daitezen.
- Euskal Herriaren euskaraz besteko hizkuntzen garrantzia, beharra eta eragina agerian utzi nahi izan dugu: gaztelania, frantsesa, ingelesa.
- Saiatu gara jarduera motibagarriak planteatzen. Horretarako, komunikazio-egoera errealetan oinarritutakoak proposatu ditugu.
- Literaturaren mundura hurbiltzeko aukerak eskaini dira.
- Materialetan eskainiko diren jardueren bidez, komunikazioari dagozkion oinarrizko hizkuntza-trebetasunak garatzeko aukera izaten dute ikasleek.
- Ikasleei, bakarkako jardueraz gain, binaka nahiz taldeka lan egiteko aukerak ere eskaini zaizkie, ezinbestekoak baitira komunikazio-egoerak antolatzen.
- Talde-lanei arreta berezia eskaini diegu, besteak beste, jarduera hauek lantzeko aukera ematen dutelako: gainerakoei entzun, txandak errespetatuz hitz egin, ahots goran irakurri, apunteak hartu, entzundakoa labur-labur adierazi...

7. Ebaluazioa

Ebaluazioak ikaskuntzaren motorra izan behar du, eta ikas-irakaskuntza prozesuekin bat egin; izan ere, ikasteak berekin ditu arazoak antzematea, zailtasunak eta oztupoak gainditzea, akatsez eta huts egiteez konturatzea eta zuzentzea.

a) Zertarako ebaluatu.

Oraintsu arte ebaluazio batutzaileak izan du indarra hezkuntza-jardunetan, beraren hautatze-funtzioak eraginda. Ebaluazioa, tradizioz, unitate didaktikoak bukatu ondorengo azterketei, probei, loturik joan ohi da. Horien bidez, gehienetan, ikasleen ezagutzen lorpen maila, eta bereziki, kontzeptuzko ezagutzen lorpena baino ez da adierazten. Baina eskola integratzailearen, inklusiboaren ikuspuntutik, hau da, ikasleen ahalmenak eta oinarrizko gaitasunen garapena bultzatu nahi dituen eskolaren ikuspuntutik, ebaluazio-praktika hori osotu eta bete egin behar da, heziketa-prozesuan zehar ikasleen beharrezkoak egokituz joango den prozesuaren ebaluazio hezitzaile eta globalaren bidez.

b) Noiz ebaluatu?

Hasierako ebaluazioa:

- Prozesuaren hasieran egiten da.
- Ikasleen hasierako egoera zehazten du, aurreikusitako planifikazioa egokitzen.
- Hezigarria da.

Amaierako ebaluazioa:

- Prozesuaren amaieran egiten da.
- Ikasleek ikasitakoa egiaztatzen du.
- Kalifikazioa jartzeko eta sailkatzeko erabiltzen da.

Prozesuaren ebaluazioa:

- Prozesuan zehar egiten da.
- Ikasleek prozesua egokitzeke izan dituzten zailtasunak eta egin duten aurrerapena identifikatzen ditu.
- Hezitzailea eta erregulatzaila da.
- Hauxe da ebaluaziorik inportanteena, ikaskuntzaren emaitzetan duen eraginagatik.
- Ikasteko, behar-beharrezkoa da ikaslea bere zailtasunak antzemateko gauza izatea.
- Ebaluazioa prozesuaren baitan dagoenean baino ez da hobetuko azken emaitza.

c) Nork ebaluatu?

Oro har, ebaluazioa irakaslearen esku dago, eta hark egingo du ikasketa-prozesuaren amaieran ebaluazio batutzailea, ikasleek ikasitakoaren egiaztatzaile bakar gisa. Irakaslea da, halaber, hasierako eta prozesuaren ebaluaziorako jarduerak planteatzeko ardura duena... Baina, gaitasunak garatzeko, bizitza osoan zehar luzatuko den ikaskuntza helburua izanik, ikasleak ebaluazioaren egile garrantzitsuak izango dira.

Ebaluazio hezitzaileari dagokionez, ikaslearen ikasketa-prozesua erregulatzeko balio behar du, hau da, ikasleek nolako zailtasunak dituzten antzemateko eta zailtasun horiek zertan dautzan jakiteko. Horrenbestez, ikasleek auto-erregulatu behar dute, hau da, honako hauek kontrolatzen: zer helburu lortzeko ari diren ikasten, zer egin behar duten ikasteko eta zein diren erabili behar dituzten irizpideak modu eraginkorrean ikasten ari diren ala ez jakiteko.

Horrek guztiak esan nahi du ikasleek ikaskuntzaren xedea jakin behar dutela, gauzatuko duten lana planifikatu ahal izateko. Alde batetik, irakasleak azaldu, ikasleekin adostu eta negoziatu behar du zer-nolako atazak egingo dituzten sekuentzia didaktikoan, zertarako diren, nolako prozesua burutuko duten eta zer hartuko den kontuan egindako lana ebaluatzeko. Beste alde batetik, ikasleek berek ebaluatuko dituzte, autoebaluazio eta koebaluazio-jardueren bidez, irakaste-prozesua nahiz beraien eta ikaskideen ikaste-prozesuak.

d) Zer ebaluatu?

Arazo-egoerak ebazteko prozesuak ebaluatzea dakar gaitasunak ebaluatzeak. Atazak dira ebaluazioaren abiapuntua, ataza errealak; hau da, gutxi edo asko, errealitatean gertatzen denaren berri ematen dutenak. Beraz, atazak proposatu dira, eta haien bidez zehaztu dira ebaluazio-adierazle jakin batzuk, zeinek adierazten baitute nola landu diren eta zenbateraino lortu oinarritzko gaitasunen garapenari laguntzeko egokienak izan daitezkeen prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko edukiak.

e) Nola ebaluatu?

Ikasleek gutxi edo asko errealak diren egoerei erantzuna emateko duten gaitasuna ebaluatzean datza gaitasunen inguruko ebaluazioa. Horrek jarduera konplexu baten baitan sartzen gaitu; ebaluazioa, horrenbestez, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan hainbat unetan gauzatuko da, eta hainbat egile izango ditu. Ezaugarri horiek, beraz, ebaluazio-tresnen dibertsifikazioa eskatzen dute:

- Gaitasunen garapena ebaluatzeraz bideratu behar da modu esanguratsuan ikasi den ala ez egiaztatzeraz bideratutako edozein ebaluazio mota.
- Gaitasunak ebaluatzeraz egoera-arazoak ebazteraz prozesuak ebaluatzeraz da.
- Ebaluazio-jarduerak hainbat jakite mota batera eta koherentziaz abian jartzeraz gaitasuna erakusteraz aukera eman behar dute.

f) Ebaluazio-tresnak

Ebaluazio-prozesuak, aurreko atalean azaldu den bezala, oso konplexuak dira, eta, horrenbestez, askotarikoak eta ezberdinak izan beharko dute ebaluazioa gauzateraz erabiliko diren tresnek. Ebaluazio-tresnak bai irakasleak bai ikasleek ikaste-prozesuari buruzko datuak jasotzeraz erabiliko dituzten baliabideak dira. Helburuen araberrakoa da tresna bat edo bestea hautatzeraz.

Ikaskuntza ebaluatzeraz:

- Ahozko eta idatzizko probak
- Galdetegiak
- Ikasleen ekoizpenak: lanak, kontzeptuzko mapak
- Ikasgelakoeh behaketa
- Behaketa-txantiloiak

Ikas-irakaskuntza prozesuak ebaluatzeraz:

- Ebaluazio-galdetegiak
- Ikastaldearen behaketa
- Ikasleen galdetegiak
- Orientazio-oinarriak
- Ikasleen lan guztien behaketa
- Koebaluazio-galdetegiak
- Didaktika-kontratuak
- Portfolioa

Kontrol-zerrenda: ikaskuntza- eta irakaskuntza- prozesuak jarraitzeraz eta ebaluatzeraz.

g) Erregulazioa: galdetegi bat jarri da (“Zer ikasi dut?”), sekuentzia guztien amaieran ikasleek berek izandako jarduerai eta egindako lanei buruz gogoeta egin dezaten, ondoko irizpideei jarraituz:

- Ikasteko ahalmena oso estu dago loturik ikasketa erregulatzeraz ahalmenari.
- Funtsezkoa da AUTOEBALUATZEN eta AUTOERREGULATZEN ikastea.
- Hori lortzeraz, zein diren ikaskuntzaren helburuak jakin behar dute ikasleek.
- Beren lana helburu baten araberraz planifikatzen dakitenak dira ikasten dakiten ikasleak.

Ikasten den bitartean, ondoko hauek kontrolatu behar dira:

- Xedea, helburua; hau da, zertarako ikasten da?
- Antolatu, planifikatu egin behar da helburu hori lortzeraz egin beharreko guztia.
- Aplikatu behar diren irizpideak zein diren, zeregina ondo gauzatzen ari den ala ez jakiteko.

8. Nori zuzentzen zaion

Ikasmaterial hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako **4. mailako D ereduko ikasleentzako** materiala da.

Ez deritzogu egoki DBHko maila hauetan ikasleak gehiago zamatzea, bai pisuz bai diruz. Hori dela-eta, ez dugu aurreikusten, euskarri moduan, lanketa-koaderno berezirik, **egin beharreko jarduera guztiak koaderno arrunt batean, orri solteetan edo baliabide informatikoak (TIC) erabiliz** egin behar baitituzte.

Arrazoi berberetatik, **ariketak eta jarduerak ez dira “ikaslearen liburuan” bertan egingo, behar denetan aparteko orri edo koadernoetan baizik.**

Modu horretan liburu **berberak hurrengo urteetan erabil ditzakete** ikastetxe bereko beste ikasle batzuek, zein familia bereko neba-arreba gazteek.

9. Erabilera-modua

Ikasleek “Ikaslearen liburua”rekin lan egingo dute, baina aldi berean erabiliko dituzte CD-DVDan egiteko ariketak, entzutezkoaren ulermena lantzeko CD-rom audioa eta irakaslearentzat lagungarria izango den “irakaslearen gidaliburua”.

Ikaslearen liburua 6 unitate ditu, eta unitate bakoitzak 35 bat orrialde. Horrez gainera, hiruhileko bakoitzeko irakurketarako proposamenak, lan-proiektu bat, hizkuntza-gaitasuna sendotzeko ariketa osagarriak eta autoebaluazioko probak eskaintzen dira liburuan.

Ikasmaterial hau erabiltzeko zenbait baldintza aurreikusten dira:

a) Metodoaren atalen osaera ezagutzea:

– Sekuentzia didaktiko bakoitzeko atalak:

- Gaia: izenburua
- Komunikazio-gaitasunak:
 - Testu mota (eremua)
 - Hizkuntza-ekintzak
 - Ulermena
- Hizkuntza-ezaugarriak:
 - Egitura bereziak
 - Lexikoa
 - Morfosintaxia
 - Euskalkiak
- Proiektua: sortu
- Ebaluazioa / Hausnarketa (Zer ikasi dut?)

- 2 sekuentzia didaktikoren bukaeran:
- PROIEKTUA. Helburua: ahozketasuna lantzea
 - IRAKURKETA. Helburua: irakurmena lantzea
 - Hizkuntza-gaitasuna (berrikusi/sakondu): aukera anitzeko galderak, arazo fosilduak, hizkuntzen arteko interferentziak, euskararen berezitasunak...
- b) Irakaslearen gidaliburuan azaltzen diren atal bakoitzaren izaera eta atalak lantzeko, zer lortu nahi den ezagutzea.
- c) Atalen arteko osagarritasuna ezagutzea; irakaslearen gidaliburua ezinbesteko tresna da horretarako.
- d) Ikasleak ezagutzea eta irakaskuntza haien beharretara egokitzea.
- e) Ikasleek liburuak berrerabil ditzaten, ariketak aparteko koaderno batean egingo dituzte, liburuan ezer idatzi gabe.

10. Zer euskarritan argitaratuko den

Hauek dira DBHko 4. mailarako eskainiko ditugun ikasmaterialak:

- Euskal Hizkuntza eta Literatura DBH-4, Ikaslearen liburua.
- Euskal Hizkuntza eta Literatura DBH-4, Irakaslearen gidaliburua.
- Euskal Hizkuntza eta Literatura DBH-4, Baliabideak, ikasle/irakaslearen CD/DVDa.

1. eranskina: DBHko 4. mailako unitateen eskema

1. EBALUAZIOA

Izenburua	1. Testu mota	2. Hizkuntza-ekintzak	3. Ulertu	4. Hizkuntza-ezaugarriak				5. Sortu	Ebaluatu (Zer ikasi dut?)
				Egitura bereziak	Lexikoa	Morfosintaxia	Munduko hizkuntzak eta kulturak		
1 Hitzekin jolasean	Olerkia	Gregeriak, idazketa automatikoaren teknika, kalligramak	Abestiak eta egindako olerkiak entzun eta ulertu	Baliabide erretorikoak: metafora, antitesia, anafora, paralelismoa, perfonifikazioa, hiperbatona, hiperbolea, sinestesia	Zenbait figura erretoriko. Hitz elkartuak	Aditz trinkoak: egon, etorri, ibili, joan, eduki, ekarri, esan, eraman	Europa: katalana	Abesti bat hartuta letra aldatu eta abesti berri bat sortu, musikarekin bat datorrena. Erabili Audacity	Autoebaluazioa
2 Haltzak ez du bihotzik ez gaitanberak hezurrik...	Baladak	Baladen teknika bereziaren azalpena. Sinbolismoa Naturaren eta nahiaeren arteko lotura. Sinboloa eta mezuaren arteko koherentzia falta	Balada entzun/ikusi eta ulertu	Zenbait hizkuntza baliabide: errepikapenak, paralelismoak, antitesiak, elipsiak eta interjekzioak	Baladak	Baladak errezitatzean kontuan hartu beharreko ahoskera-arauak. Euskaltzaindia	Europa: italiara	Balada bat sortu eta RAP eran errezitatu	Autoebaluazioa
PROIEKTUA	Helburua: Olerki emanaldia antolatzea Zer egin: Taldeka olerkiak aukeratu eta modu egokian irakurri ikaskideen aurrean.								
IRAKURKETA	Itxaro Borda: <i>XX Mendeko Poesia Kaiarak</i>								
HIZKUNTZA-GAITASUNA	- Aukera anitzeko gaideak: esamoldeak, lexikoa, ortografia, morfologia, sintaxia, aditza - Gure euskara hobetzen (hizkuntzen arteko interferentziak eta arazoak): -GATIK gehiegi erabiltzea / Neurriak adierazteko prozedurak Neurriak eta ontziak / *Guzti hau vs Hau guztia								

2. EBALUAZIOA

Izenburua	1. Testu mota	2. Hizkuntza-ekintzak	3. Ulertu	4. Hizkuntza-ezaugarriak				5. Sortu	Ebaluatu (Zer ikasi dut?)
				Egitura bereziak	Lexikoa	Morfosintaxia	Munduko hizkuntzak eta kulturak		
3 Zer da basoko zurrumurru hori?	Fabula/alegia Adib.: <i>Behin batean... alegia</i>	Alegietako egitura, pertsonaiak, gaiak, asmoa, azken irakaspena	Alegia bat ikusi/entzun	Etopeia, prosopografia eta prosopopeia	Alegiak. Esaera zaharrak	Itzulpenak egiteko orduan kontuan hartu beharreko zenbait desegokitasun eta kalko oker	Europa: errusiera	Sortu alegia baten gidioa eta antzeztu	Autoebaluazioa
4 Baiezia eta ezezka...	Esketxak	Umorea adierazteko erak	Esketxak ikusi/entzun eta ulertu	Esketxa irratian: elkarrizketa lekuak eta pertsonaiak deskribatzeko	Esketxak, zinema	Menderakuntzan egiten diren ohiko akatsak	Europa: portugesa	Sortu eta grabatu eskebxa: egin bideo laburra mugikorra erabiliz	Autoebaluazioa
PROIEKTUA	Helburua: Afrikako ipuinak komiki bihurtzea Zer egin: Bikoteka ipuin bat aukeratu eta komiki bihurturik erakutsi. Beste ikaskideei.								
IRAKURKETA	Joseba Sarrionandia: <i>Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak</i> , Pamiela, 2009								
HIZKUNTZA-GAITASUNA	- Aukera anitzeko galdeak: esamoldeak, lexikoa, ortografia, morfologia, sintaxia, aditza - Gure euskara hobetzen (hizkuntzen arteko interferentziak eta arazoak): ELKARRen erabilera / NOREN versus NONGO kasuak Maiztasuna adierazteko erak / BIHURTU aditzaren erabilera								

3. EBALUAZIOA

Izenburua	1. Testu mota	2. Hizkuntza-ekintzak	3. Ulertu	4. Hizkuntza-ezaugarriak				5. Sortu	Ebaluatu (Zer ikasi dut?)
				Egitura bereziak	Lexikoa	Morfosintaxia	Munduko hizkuntzak eta kulturak		
5 Zer irakurri, horretaz idatzi!	Literatur testu baten iruzkin literarioa	Liburu bati buruz esan eta idatz daitekeena. Iruzkinarean antolaketa, zatiak, adierazi beharrekoa...	Liburu baten aurkezpena entzun eta ulertu	Erregistro motak: formala, espezifikoa...	Komunikazio-egoera, igoera, hartzailea, kanala...	Estilo-arazoei aurre egiteko zenbait gomendio	Afrika, Asia: arabiera	Testu liriko baten oinarritutako iruzkin literarioa sortu	Autoebaluazioa
6 Joan eta etorri kapela gorri	Bidaia-kontakizuna	Deskribapenaren atalak: gaia, aspektua, hedapen, predikatiboa, markoa. Deskribapen teknikak: estatikoa/ dinamikoa, inpresionista/ espresionista, sinesgarriak/ fantastikoak, errealistak/ idealizatuak	Bidaia baten berri ematen duen dokumentala, pelikula... entzun eta ulertu	Lekuak deskribatzean nola adierazi kokapena, klima, biztanleria, azalera, hizkuntzak...	Bidaia	Zenbait aditzen zalantza zko erregimena (gonbidatu, ibarone, deitu, lagundu...)	Asia: txinera	Eskolan/ gurasoekin/ lagunekin... egindako bidaia baten kontakizuna egin	Autoebaluazioa
PROIEKTUA	Helburua: Gure bidaia ren fotografa osatzea Zer egin: Argazki bilduma egin argazkiei dagozkien iruzkinak idatziz.								
IRAKURKETA	Nirudia.com-en (http://nirudia.com/eu/pag_1/) dauden 5 fotolog irakurri								
HIZKUNTZA-GAITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Aukera anitzeko gaideak: esamoldeak, lexikoa, ortografia, morfologia, sintaxia, aditza - Gure euskara hobetzen (hizkuntzen arteko interferentziak eta arazoak): Erlatiboa: -(E)LA versus -(E)NA / ZERGATIK kausa. vs NORK egilea. kasuak Hitz eta esapide batzuen erabilera desegokia: ZENTZU, BERRI, BESTE EGUNEAN / EREren erabileraz 								

1. UNITATEA: HITZEKIN JOLASEAN

(6. - 61. or.)

1. TESTU MOTA

OLERKIA



1. Entzun ditzagun arretaz honako kanta hauek, eta erantzun galderei

Gogoak (Esne Beltza)

Negua joan da ta (Zea Mays)

Taldeka, eman ezazue zuen iritzia galdera hauei buruz:

- Zure ustez, bada olerkirik kanta horien oinarrian? Gogoko dituzue?
 - Kanta batean entzun beharrean liburu batean irakurriz gero, efektua guttiz bestelakoa izango litzateke zure ustez?
 - Zer iradokitzen dute?
- (Erantzun librea)

GOGOAK (Esne Beltza)

It's a new dawn, It's a new day uh uh uh uh
It's swiftly gone by you know how I feel
Ohohohoh

Emaidazu berriro ongietorria
Zu zara nire poz guztien iturria.
Emaidazu berriro ongietorria
Gelditzeko nator eta!

Tren batean gurutzatzen diren begiradak
Barra ertzean ematen diren muxuak
Lo aurreko uneak amesten,
Amesten egunak joaten dira.
Hondartza horian egindako gazteluak
Ez dituzte olatuek eraitsiko,
Gure eskuekin marraztutako loreak
Ez ditu denborak ebakiko.

EMAIDAZU...

Le notti arrivano veloci
I giorni scappano
Dalle mie mani
Ricordi il treno
Nella nostra stazione

Invece qui la gente no ci parlate ...
Loak hartu baino lehen esnatu nahi nuke
Loak hartu baino lehen amestu nahi nuke
E sogni
Aspaldiko garaian bidean galdurik
gogoratzen zaitudan bezala ikusi!!
Imagini, imagini, imagini

EMAIDAZU...

Imagini
E sogni
Di quella
Racogliemi di nuovo
Fra le tue braccia
Perchè sei tu la fonte
Della mia felicità
Racogliemi di nuovo
Tra le tua braccia
Perchè ritorno per restare
Ohohohoh

EMAIDAZU...

Negua joan da ta (Zea Mays)

Elurrak joan direnean nire mendien artean
Eguzkia teloian atzekaldean da
Ateratzeko beldur da, beldur eszenikoa
Aspaldi antzeztu ez duen obra honetan
Izpi txiki-txikiren bat agertuz doa gaurkoan
Poztasun handi batek besarkatzen nau
Mesedez ozen esan negua joan egin dela
Nire arima hotzak ez du sinisten eta
Laztandu nazazu orain, ur urdinen artean
Orain lainorik ez da, aurpegi biluziak
Ta larrua jotzean garrasirik ozenena,
Gordin amaigabea, negua joan da ta.

Jaio berrien antzera taupaden beharra dut orain
Belarriekin ikusteko nire begiek entzuten ez dutena
Mesedez ozen esan negua joan egin dela
Izara guztiak erre ditut eta
Soinu bakar bakarra zure bularraldean
Negua joan da ta
Borobildu zaizkit ertzak zure ondoan
Izpi lasaigarri bat
Negua joan da ta, negua joan da ta

2. Zer da zure iritziz poesia?

Erantzun librea.

KONTUAN IZAN



Aipuak

3. Olerki zaharrak

a) Irakurri arretaz olerki bakoitza, eta aurkitu zer gai jorratzen duen, zeri edo nori eskainia den.

- Gernikako arbola: Gernikako arbolari
- Kontzeziarentzat: Bilintxen bihotzeko maiteari
- Ernani: Hernani herriari
- Limosnatxoa: eskean ari den gizon bati

b) Erreparatu formari, eta saiatu galdera hauei erantzuten:

- Zer neurritakoak dira olerki horiek?
- Gaur egun, horrela idatziko genuke euskara batuan?
- Zer aldatuko genuke?

1. Gernikako Arbola: Zortziko txikia
2. Kontzeziarentzat: Zortziko handia
2. Ernani: Hamarreko txikia
4. Limosnatxo bat: Hamarreko handia

Ikasleei bertso horien inguruan egin dakizkiekeen galderak:

1. Galdera: a) Zergatik ageri dira *bedeinkatuba*, *maitatuba*, *munduban*, *frutuba* eta *santuba*? b) Zer kasutan sartzen du *b* letra “gehiegizko” hori? Erantzunak: a) azpi-euskalki bateko forma ahozkoak erabiltzen ditu; b) Zer kasutan sartzen du *b* epentetikoa? Kasu honetan: u+a = uba).

2. Galdera: Zergatik idazten du *Bilintxek* “kantatutzero” eta ez “kantazero”? Horrela neurria ongi betetzen du; horrelako lizentziak nahiko onartuak dira, gaur egun ere, bat-bateko bertsolaritzan.
3. Galdera: Zergatik erabiltzen ditu *gainian, joanian, nintzanian, izenian*? Euskalki bateko ahozko formak erabiltzen ditu.
4. Galdera: “Zeraden” forma erabilia, zer lortzen du egileak? Neurria ongi osatzea, bestela laburregia geldituko litzateke eta; lizentzia horiek nahiko normalak dira, gaur egun ere, bat-bateko bertsolaritzan.

4. Nola agertu gure sentimenduak

Erantzun librea.

5. Zenbait olerki

- a) Irakurri, bakarka, jarraian dauden olerkiak, azpimarratu hitz ezezagunak, eta aurkitu horien esanahia. Gero, bete taula, eta konparatu ondoko lagunenekin, arrazoitu erantzunak, eta, azkenik, bateratu talde handian.

Oharra: Testu batzuk ez daude gaur egungo idazkeran, eta euskalkietan idatziak dira. Beraz, komeni da irakasleak ziurtatzea ikasleek ongi ulertu dituztela testuak, hartarako laguntza emanez edo/eta hiztegietan ikus dezatela aginduz.

Olerkia	1	2	3	4	5
Zer izenburu du?	Lagun bat	Txoria txori	Kontrapas	Nire aitaren etxea	Oianone
Gaia	Lotsa	Askatasuna	Euskarari gorazarre	Izaeraren defentsa erasoen kontra	Maitasuna eta sexua
Egilearen ezaugarriak	Kirmen Uribe: idazle gaztea, proiektzio handikoa; 2009an Espainiako Literatur saria (Bilbao-New York-Bilbao).	J. A. Artze: <i>Ez dok hamairu</i> taldeko artista berritzailea (musikaria eta poeta).	Beñat Etxepare: lehen euskal poeta, Iparraldekoa.	Gabriel Aresti: aitzindaria poesia sozialean euskaraz, frankismoaren denboran. Gazterik hila.	Jon Mirande: poeta paristarra jatorri euskaldunekoa, Zuberokoak; polemikoa, ideologia faxistarekin lotu izan dute.
Zer esaten da?	Lotsak gauza politak eta gogokoak egitea eragozten diola egileari, eta traba horiek gorrotatzen dituela.	Askatasunak baduela beste alde bat: arriskua, ziurtasun-falta.	Euskara hizkuntza egokia dela, eta indartuko dela beste hizkuntza guztien gainetik.	Gure izaeraren kontrako erasoak etorriko direla baina denei aurre egiteko erabakia hartua dugula.	Maitalearekin maitasuna egitean xehetasunak.
Garai eta tokiren batean koka dezakezu?	Bilbon, XXI. mendean.	Gipuzkoan, <i>Ez dok hamairu</i> -ren denboran (1960-70...)	XVI. mendean. Iparraldean. Trentoko Kontzilioaren inguruan (1545-63)	1955-1975. Bilbon.	XX. mendearen bigarren erdian, euskara mundu moderno eta laikora egokitzen ari den garaia.
Nolako sentimenduak sorrarazi dizkizu?	Erantzun librea	Erantzun librea	Erantzun librea	Erantzun librea	Erantzun librea

b) Iritziak entzun eta gero, erantzun taldean galdera hauei:

- Izan daitezke olerki hauek gaur egungoak? Arrazoitu ezazu erantzuna.
- Gaur egungoak dira haietan agertzen diren sentimenduak? (Erantzun librea, argumentatua. Baina bai, gaur egungo gaiak dira)
- Zer izenburu jarriko zenieke olerkiei? Erantzun librea, baina argudiatua.

c) Zein ote da olerki horien egiazko izenburua? Badakigu nor den bakoitzaren egilea? Noiz idatziak dira? Aukeratu hauen artean:

Izenburua	Egilea	Data
1. Lagun bat (<i>Bitartean heldu eskutik</i> liburua)	Kirmen Uribe	2001
2. Txoria txori	J. A. Artze	XX. mendeko 60. hamarkadan
3. Kontrapas	B. Etxepare	1545
4. Nire aitaren etxea (<i>Harri eta herri</i> liburutik)	G. Aresti	1963
5. Oianone	J. Mirande	1953

d) Taldeka jarrita, aukeratu egile bat eta lortu hari buruzko informazioa (eginiko lanak, haren garaiko giro soziala...). Gero, trukatu zure kideekin, eta osatu informazioa.

Irakaslearentzako informazio osagarria:

Euskarazko lehenengo olerki-liburua 1545. urtean idatzi zen, eta, gerora, hainbat olerkari izan ditugu gure literaturan. Gai erlijiosoak franko lantzen ziren, baina, XX. mendean, literatura berria sortzen da. XX. mendean gure idazleek bazekiten Europan nagusi ziren literatura-mugimenduen berri, beste herri batzuetako lanak irakurtzen zituzten, eta, beraz, idazteko moduak aldatuz joan dira/ziren. Mugimenduek garaian garaiko gizartearen nondik norakoak adierazten dituzte.

Literatur mugimenduak hauexek dira:

- **Erromantizismoa:** XIX. mendearen hasieran sortu arren, gaur egun arte iritsi da haren eragina. Olerkariak bere pentsamenduak, sentipenak azaltzen ditu. Gehienetan, lehenengo pertsonan idazten du (nitasuna). Deskripzio eta irudi zuzenak erabiltzen dira.
 - Gaiak: amodioa, zoritxarra, bakardadea.
 - Olerkariak: “Bilintx”, “Etxahun”
- **Sinbolismoa:** gerra aurretik (pizkundea). Indar berriak sentitzen dira gizartean, euskaldunak bere buruaren jabe izan nahi du. Irudi zuzenak erabili beharrean metaforak erabiltzen hasten dira.
 - Olerkariak: “Lizardi”, “Lauaxeta”, “Orixe”
- **Gerraostea:** garai iluna eta produkzio gutxikoa.
 - Olerkariak: T. Monzon, S. Mitxelena, “Iratzeder”
- **60. hamarkada. Poesia soziala:** Francoren diktadurapean sortutako errealitateari egiten zitzaion kritika. Olerkariak garai horretako egoera sozial eta politikoa salatu nahi zuten (nekazariak eta lantegietako langileak jasaten zuten egoera).
 - Gaiak: bizitza eta lan-baldintza gogorren sorrera, marjinazio soziala, aberastasunaren banaketa desorekatuak sortzen zuen bidegabekeria, gudaren oroimena, bakardadea.
 - Olerkariak: G. Aresti, X. Lete, Lasa, Sarasola, D. Landart.
J. Mirande (bestelako gaiak jorratu zituen: Erotismoa -onanismoa eta lesbianismoa-, heriotza, paganismoa eta abertzaletasuna).

- **Abangoardia:** esperimentatzeko eta jolasteko erabiltzen da poesia. Poetek ez dute errealitatea ez deskribatu ezta aldatu nahi ere. Hitzekin eta formekin jolasten dira. Uko egiten zaio poesia sentimentalari.
 - Olerkariak: Artze, X. Lete, B. Gandiaga.
- **Surrealismoa:** mezuak modu nahasian ematen dira, metaforak pilatu egiten dira, eta ez dute lotura logikorik.
 - Gaia: gizakiaren askatasuna batez ere.
 - Olerkariak: Atxaga, J. Sarrionandia, K. Izagirre.
- **Azken aldiko euskal olerkariak:**

Gaur egungo idazle gehienak unibertsitarioak dira.

 - Idazleek aukera izan dute Euskal Herriko literatura zein atzerrikoa ezagutzeko eta aztertzeko. Lehen, adibidez, Arestik edo Mirandek zuten unibertso kultural hori; orain ezaguna da beste askorentzat ere.
 - Gizarte-aldaketak egoera berriak eta mentalitate-aldaketa dakartza, ezinbestean.
 - Euskal mitologian hain funtsezkoak izan diren zenbait sinbolo, hein batean, bazterturik gelditu dira. Olerkari berriak, beren garaiko gizartea bezala, unibertsalagoak dira, aukera izan baitute beste kultura askotako literaturaz zabal eta sakon jabetzeko.
- **Belaunaldi gazteak:** Kirmen Uribe, Itxaro Borda, M. Agur Meabe, Juanjo Olasagarre, Iñigo Aranbarri...

2. HIZKUNTZA-EKINTZAK

A) GREGERIAK

1. Itzuli

Saia gaitzen Gómez de la Sernaren gregeria hauek ulertzen eta euskarara itzultzen:

- 6a familia izango duen zenbakia da.
- Bisontea aurrehistoriako zezen erretiratua da.
- Garuna buruan daramagun ideia zimurtuen paketea da.
- Gariburuek (galburuek) kili-kili egiten diote haizeari.

2. Lotu

Beheko koadro honetako gregeriak desordenatuta daude. Saia gaitzen hasierak eta amaierak elkarri lotzen.

- Lehen muxua lapurreta da.
- Kometa mototsa urratu zaion izarra da.
- Ortzadarra da naturak burua garbitu eta gero janzten duen zinta.
- Sugandila hesi-hormaren krisketa da.
- Lurruna uraren mamua da.
- Esnea ezkontza-soinekoz jantziriko ura da.
- Etab., etab., etab. idatziaren txirikorda da.
- Burua ideien arrain-ontzia da.
- Erregaia zibilizazioaren intsentsua da.
- Munduko trenbiderik txikiena beldarra da.

3. Osatu

Jarraian, bete hutsuneak hitz egokiarekin.

- Urak ilea **ur-jauzietan** askatzen du.
- **Idazkera txinatarra** hitzen hilerria da.
- Zeroak dira gainerako zenbakiek erruten dituzten **arrautzak**.
- Umeen **puxikak** beldurrak jota doaz kaletik.
- A, alfabetoaren **Eiffel Dorrea** da.
- B alfabetoaren **betaurrekoak** dira.
- F alfabetoaren **giltza** da.

4. Asmaketan

Goian ikusitako formula gogoan hartuz (METAFORA + UMOREA = GREGERIA), saia gaitezen irudi hauekin albisteak asmatzen.

(Erantzun librea).

5. Irudimena askatu

Askatu zure irudimena eta azaldu zer den ezkerreko zutabeko hitz bakoitza. Bakarka egin ondoren, truka ezazu egindakoa ikaskideekin, eta eztabaidatu zein den egokiena eta zergatik.

(Erantzun librea).

B) KALIGRAMAK

1. Irudia edo olerkia

Kaligrama sorta honi erreparatuz, komenta dezagun talde txikietan zer ikusten dugun horietako bakoitzean, eta zer lotura duen irudiak testuarekin.

Interesgarria da aztertzea nolako lotura duen irudiak kaligraman ageri den testuarekin. Adibidez, ispi-luaren aurrean dagoen katuak zer esaten du? Edo zer lotura dago ingelesezko hitz horien esanahiaren eta irudiaren artean? *Grow* handituz edo haziz doa; *shrink* txikituz; *rainbow* idazteko ortzadarraren 7 koloreak erabili dira...

2. Kaligramak sortzen

Bideo honetan ikusten diren hainbat kaligrama-egileren lanak eredu hartuta, eragin diezaiogun gure irudimenari, eta ea zer kaligrama sortzeko gai garen.

Oharra: apaindu gela sortzen diren kaligrama horiekin, edo eman saria onenari.

C) IDAZKETA AUTOMATIKOAREN TEKNIKA

1. Ekin idazteari

Jarraian, orri zuri bat eta arkatza (boligrafoa) hartuta, idatz dezagun bakarka gogora datorkigun edozer gauza. Ez kezkatu ortografia-arauekin (puntuak, komak...). Berdin da emaitza zeinen eroa den. Geure buuruari mugarik ez jartzea da kontua, normalean egingo ez lituzkeen lotura eta ideiei bide emateko horrela.

EREDU BAT:

Eguzkia atera da eta ni bizkarreko minarekin begira armairuak ez du distirarik baina beharrik ere ez eta kotxearen zarata faltan sumatzen dut arraroa da ongi baina betaurrekoak ez dira kuadratuak pentsatzen nago ezin direla munduko gauzak batera pentsatu, baina pentsatu zer hemen tokatu zaigu eta lanpedusan bagina igual itoko ginake beltzak bagina ezin bizi garenak geure tokian eta alfonbrak ere badira kolore

askokoak eskuineko eskuarekin idazteko arinago balio dit tutuak lehertzen duen idorpea noiz enteratuko, estresatuko dira eta orain ezin argitu dena ilundu arte ez baldin badira eltzetzuak etortzen kontrabandoari kontra egitera eta eurek ere irabaziak eltze-itsuan sartzeko eta orain ikusi behar...

3. ULERTU



ENTZUMENA

1. Historiaren Tabernan

Entzun ezazu abestia, eta, ondoren, erantzun galderari.

- Ezagutzen duzu irudietan agertzen den taldea?
- Ezagutzen dituzu abestian aipatzen diren kanta zatiak?
- Hona hemen "Historiaren Tabernan" kantan agertzen diren abesti zati batzuk. Jakingo zenuke esaten zein abestiri dagozkion, poemaren egilea nor den eta nork abesten dituen?

Esaldia	Abestia	Idazlea	Abeslaria
Gizon emaztek haur ala gaztek	Gure zortea	Anje Duhalde	Anje Duhalde
Ukazioa legetzat	Izarren hautsa	Xabier Lete	Mikel Laboa
Donostiako hiru damatxo	Donostiako hiru damatxo	Herri-abestia	Amaia Zubiria
Zibilek esan naute	Zibilak esan naute	Iparragirre	Gontzal Mendibil
Hor agertzen da Txirrita	Ari naizela, ari naizela	Pello Errota	Herri-abestia
Soineko zuriz jantzita	Bizkaia maite	Jose Anjel Irigarai	Benito Lertxundi
Bizkaiko aberatsak diruzale	Bizkaiko aberatsak	Gabriel Aresti	Oskorri
Honela ezin leike	Ezin Leike	Delirium Tremens	Delirium Tremens
Mendi hegaletan gora	Xalbadorren heriotzean	Xabier Lete	Erramun Martikorena
Ez, ez dut nahi	Ez, ez dut nahi	Julen Lekuona	Benito Lertxundi
Ta gero beste, bestebat ta beste bat	Hegal egiten	Bernardo Atxaga	Itoiz
Azken arnasa eman nahi nuke	Itsasoari begira	Jon Maia	Benito Lertxundi
Izar berri bat piztutzeroa noa	Lepoan hartu	Telesforo Monzon	Peio ta Pantxoa

IRAKURMENA

2. Irakur ezazu testu hau: *Ez Dok Amairu...*

Testua irakurri ondoren, erantzun galdera hauei taldeka:

- Ezagutzen duzue *Ez Dok Amairu* taldea?
- Ezagutzen dituzue testuan agertzen diren parte-hartzaileak?
- Aurki ezazue taldekideei buruzko informazioa.
- Jakingo zenukete azaltzen nondik datorren *Ez Dok Amairu* taldearen izena? Hau da, nork jarri zion izena eta zergatik?

Ez Dok Amairu taldeko hainbat partaide (Mikel Laboa, Lurdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi...).

Oteizak jarri zion izena taldeari, Resurreccion Maria de Azkueren ipuin batean oinarrituta. Deabruak artzain bati galdetu zion ea kristauen misterio guztiak ezagutzen zituen, eta hark banan-banan azaldu zizkion. Baina hamahirugarrenera heldu zenean, ez zuen jarraitzen jakin. Hortik datorkio izena: *Ez dok amairu*.



3. Garaian garaikoa

Ondoren, abesti bihurturiko hiru poema entzungo ditugu, eta bakoitzaren bi bertsiio.

- **Mendigoixaliarena:** Antton Valverde / Eñaut Elorrieta
- **Eperra:** Niko Etxart eta Anje Duhalde / Zirikatu
- **Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak:** Mikel Laboa / Zea Mays

Erantzun iezaiezu galdera hauei:

- Badakizu zer poetak sortu zituzten kantuen letrak?
- Eta nor dira musikariak?
- Kanta bakoitza bitan izan da musikatua: badakizu zer garai edo hamarkadatarakoa den bakoitza?

Mendigoixaliarena, Estepan Urtiaga “Lauaxeta”k sortu zuen; *Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak*, Xabier Letek, eta *Eperra* herrikoia da.

Mendigoixaliarena, Antton Valverdek eta Eñaut Elorrietak musikatu dute; *Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak*, Mikel Laboak eta Zea Maysek, eta *Eperra*, Niko Etxartek eta Anje Duhaldek eta Zirikatu taldeak.

Mendigoixaliarena: Antton Valverdek 1978an eta Eñaut Elorrietak 2005ean.

Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak: Mikel Laboak 1969an eta Zea maysek 2002an.

Eperra: Herri-abestia da eta 80. hamarkadatik aurrera kantatzen dute Niko Etxartek eta Anje Duhaldek, elkarrekin edo bakarka.



4. Literatura inspirazio-iturria zen Laboarentzat

Elkarrizketa honetan, Marisol Bastida ageri zaigu, Mikel Laboak poemak musikatzeko aukeratzen zituen poetei buruz hizketan. Ikus ezazu bideoa, eta, ondoren, erantzun galderei.

- Nor dira aipatzen dituen idazleak? Ezagutzen dituzu? Bila ezazu idazle horiei buruzko informazioa, eta jarri gelan denen artean adostutakoa.

Bertold Bretch, Joxe Angel Irigarai, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Xabier Lete

- Nork egin zizkion diskoen azal eta kartel gehienen ilustrazioak?

Joxe Luis Zumetak

5. Bilaketa

Aurreko bideoan hainbat idazle aipatzen dira. Horiei buruzko informazioa bilatu ostean, osa ezazu bakoitzari buruz jarri dugun erreferentzia, eta esan zer esanahi duen bakoitzaren bizitzan.

- | | | | |
|---|---|---|---|
| a) Alemania
Bertold Bretch
Jaioterria | d) Izarren hautsa
Xabier Lete
Obra | g) Zalduondo
Bernardo Atxaga
Bizitokia | j) Lagun izoztua
Joseba Sarrionandia
Obra |
| b) Obabakoak
Bernardo Atxaga
Obra | e) 1942
Joxe Anjel Irigarai
Jaiotza-urtea | h) Deserria
Joseba Sarrionandia
Bizitokia | k) 1956
Bertold Bretch
Heriotza-urtea |
| c) Iurreta
Joseba Sarrionandia
Jaioterria | f) Oiartzun
Xabier Lete
Jaioterria | i) Iruñea
Joxe Anjel Irigarai
Jaioterria | |

6. Bertso jarriak

Ikus ezazu Miren Amurizak eta Maddalen Arzallusek 2010eko *BERTSO EGUNEAN* kantatutako bertso jarrien bideoa, eta, ondoren, erantzun galderari.

– Ezagutzen dituzu bi bertsolariak? Zeri edo nori kantatzen diote bertso hauetan? Zergatik esaten dituzte “*baina titularretan beti dira tabu*” edo “*abizena baino lehen izena daukagu*” bezalako esaldiak? Egin gogoeta denen artean.

Beren amei kantatzen diete. Miren Amurizak eta Maddalen Arzallusek, biek bertsolariak dituzte aitak, eta Maddalenek baita neba ere. Horregatik, diote “*titularretan beti direla tabu*” edo “*abizena baino lehen izena daukagu*”, normalean beren aitei buruz hitz egiten delako eta sarri aipatzen delako haien alabak direla.

4. HIZKUNTZA-EZAUGARRIAK

4.1. EGITURA BEREZIAK

BALIABIDE ERRETORIKOAK: TROPOAK ETA IRUDIAK

1. Zer ote da olerkia?

Talde txikitan elkarturik, irakur itzazue aipu hauek eta erabaki, denen artean, zein iruditzen zaizun goiko galderari erantzuteko definiziorik egokiena (eta zergatik).

(Erantzun librea)



2. Oteiza, Jorgeri

Olerki hau Joxe Anton Artzek Jorge Oteizari eskaini zion elkarlanean egindako disko-liburuan: *Jorgeri*.

a) Nor dira Jorge Oteiza eta Joxe Anton Artze? (Bila ezazu artista horiei buruzko informazioa).

Oteiza Enbil, Jorge

Gipuzkoar eskultorea eta idazlea (Orio, 1908 - Donostia, 2003). Eduardo Chillidarekin batera, XX. mendeko euskal eskultorerik garrantzitsuena da, eta mundu guztira zabaldu da haren itzala, XX. mendeko bigarren erdiko abangoardia artistikoetan izan baitu eragina, baita Euskal Herritik kanpo ere. Esperimentazioarekin eta arteak gizartea eraldatzeko duen ahalmenarekin erabat konprometitua egon zen sortzaile gisa. Medikuntzako ikasketak hasi zituen Madrilen. Hirugarren ikasturtean ikasketa haiek utzi eta Arte eta Ofizioen eskolan eman zuen izena. 1928an hasi zen eskultura egiten. Eragin handia izan zuten Oteizarengan Europako abangoardiek, Hego Ameriketako Kolon aurreko eskulturak, eta Alberto Sánchez, Epstein, Brancusi eta gisako eskultoreek...

Iturria: Lur Hiztegi Entziklopedikoa

Artze, Jose Antonio

(“Hartzabal” deitua). Gipuzkoar poeta (Usurbil, 1939). 1965. urtean sortutako “Ez dok Amairu” taldeko kide izan zen, beste hainbat artistarekin batera. Poesiagintza landu du gehienbat, eta bere lanak beti izan dira berritzaileak: *Isturitzetik Tolosan barru* (1968), ...*laino guztien azpitik eta ...sasi guztien gainetik...* (Zumeta margolariarekin elkarlanean argitaratutakoa), *Ortzia lorez, hurra izarrez* (1987) eta *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat* (1998) poesia-liburuak dira horren lekuko. Bere poesiak soinu-dun grabazioan eman ditu argitara (*Zurezko olerkia*, 1992) eta ikus-entzunezko lanetan ere parte hartu du Mikel Laboa eta Luis de Pablo musikariekin. Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina jaso zuen, “Ez dok Amairu” taldeko beste kide bazuekin batera, 2000. urtean.

Iturria: Lur Hiztegi Entziklopedikoa

- b) Irakur ezazu isilean olerkiaren lehen zatia, eta saiatu zaitetz ulertzen.
- c) Irakur ezazu olerkia ozen eta interpretatuz: astiro eta behar diren pausaldiak eginez.
- d) Entzun ezazu Artzeren interpretazioa, eta alderatu zure bertsoarekin.

Sakonki maite dut ene herria

Sakonki amorrarazten dit ene herriak.
 Sakonki ezagun dut.
 Sakonki ez ezagun dut.
 Ematen diot ene bizia,
 ematen ere sakonki ene heriotza.

Dudan guztia ematen diot.
 Are gehiago, ez dudan guztia ematen diot:
 ez naizena,
 naizela ere inoiz jakingo ez dudana,
 inoiz jakingo ez duguna.

Nitaz soilki ezagun dudana.

Sukar bakar honen mota ezberdinek:
 Gizon bat bakarrarena,
 neurea,
 zuhaitz bakar batena,
 hosto bakar batena,
 edozein hosto bakar honena,
 edozein esku bakar batean,
 edozeinek eskuan daukana.

Eskuko hatzetan
 Arkatzaren azken puxka hori aspaldi hartan,
 haur baten hatz puntetan
 nire haur-hatzetan
 hire haur-hatzetan.
 Ea oroitzen naizen.
 Ezagun ez ditudan hatz berauek, txiki,
 Beste esku bat da.
 Begiratzen diot,
 hemen daukat eta ihes egiten dit:
 hemen zegoen eta hemen dirau,
 hemen barruan higitzen da
 orduko haurraren esku ttiki eta zuri hura.

Azken arkatx puxka harekin,
 beti azkenekoa,
 arkatza eta biok,
 munduko azkenekoak,
 munduko haur guztien arkatx guztiak bezala
 ahoratzen nuena.

Nola eraman, zertako
 ahora beti berdín
 beti berri
 eta mekaniko den arkatza
 bere altzairuzko bolatxo ikustezinarekin
 eta ixilik
 bere bolatxo birakaria:
 jira-birakaria, jira-birakaria
 bolatxo ttiki eta askotariko eta bakartia
 Munduaren birakaria
 jira-birakaria, jira-birakaria,
 alperrikako gizon zahar
 eta errepikatu eta birakari honena
 jira-birakaria, jira-birakaria,
 bertan behera utzi ezin dezakedana,
 ez eta ezagun ere
 ttikia eta akitua dagoeneko
 antzinako haur etorkizunerako
 ttiki eta jira-birakaria,
 antzinako eta jira-birakaria,
 lehen eta jira-birakaria,
 bihar, beharbada, bihar eta jira-birakaria,
 batez ttikia nire eskola-lanetan
 ttikia, beharbada, bihar eta jira-birakaria,
 beharbada, ostiral, osteguna, zehatzago
 ostiral ttiki hau
 borobil haste,
 astelehen, hobe, igande,
 beti igande
 eta jira-birakaria.

Irakaslearentzako oharra: denen aurrean zenbait ikasleren bertsoak entzutea komeni da.

3. Zenbait baliabide erretoriko



a) Entzun ezazu honako azalpen hau.

Figura erretorikoak

Hizkera literarioaren osagarri nagusi diren baliabide literarioei *figura* esaten zaie. Hizkera literarioa, beraz, hizkera figuratua edo figuraz eta irudiz hornitua da, eta hizkera arruntetik bereizten da horrelako baliabide literario ugari erabiltzen direlako.

Hala ere, figurak eta irudiak ez dira soilik literatur mintzaira jasoan erabiliak; figura eta irudi horiek sarritan hizkera mintzatu eta egunerokoan erabiltzen dira. Adibidez, “babalore ederra hi!” edo “emadazu errioxa bat” moduko esakunek esanahi jakina dute herriaren hizkeran, ez dute ezustekorik eragiten. Esakune horiek herri-kode espresibo baten zati dira; halere, gehiegi hedatzen direnean, sorpresarako ahalmena galtzen dute eta berri-egin ohi dira etengabe. Literaturan ere, baliabide literarioen alorrean, etengabeko bilaketan dihardute egileek. Hortaz, errekurtso espresibo edo baliabide estilistiko berezien multzo jakin bati eman zaie *figura* izena.

Figura erretorikoak hiru motatakoak dira:

- Hizkuntza figurak edo hitzezko figurak (fonetiko-fonologikoak, morfologikoak eta sintaktikoak).
- Pentsamendu figurak
- Figura semantikoak: tropoak edo irudiak

TROPOAK

Irudi literarioek edo figura erretoriko semantikoek ez dute zertan hitzen esanahia aldatu, baina halako plus bat eransten diote diskurtsoa edo testua adierazteko gaitasunari, hizkuntzarekin jolas-tuz eta hizkuntza erabiliz modu berezian: hitzen ordena aldatuz, esaldien apaindura erretorikoa areagotuz...

Tropoek, berriz, hitzaren berezko esanahia aldatzen dute, beste hitz baten adiera hartzeko, harenarekin analogia, antzekotasuna edo nolabaiteko

hurbiltasun-erlazioa duelako. Alegia, hitzari irudizko esanahi berri bat ezartzen dio.

Tropo nagusiak metafora, metonimia eta sinekdokea dira.

• Metafora:

Metafora hitz bat beste baten ordeztzen duen tropoa da; bataren adiera literalak bestearen antza du. Adibidez, “Rommel azeria zen” (esan nahi baita, Rommel maltzurra zen, azeria bezalako). Lauaxetak, honako metafora hau idatzi zuen:

“Andaparan ura dago
zidar-litsa makal artez”

Zilarrezko marraz aipatu du ura, pentsatzen delako badagoela antzekotasunik zilarren eta uraren artean, adibidez, bien kolore argi dirdaitsua.

• Metonimia:

Metonimia izaki bat beste izaki baten izenez izendatzea da, bien artean honako erlazio mota hauek egonik: kausa-ondorioa, elkarrekiko mendetasuna, mugakidetasuna edo aldiberekotasuna. Adibidez, eta zehatzago, kausa-ondorio erlazioan kausa bere ondorioaren ordeztzen da: egilea bere lanaren ordeztzen da (*Mozart* entzun edo *Atxaga* irakurri). *Mozart* ezin da entzun, hark egindako musika baizik, eta *Atxaga* ezin da irakurri, berak idatzitako eleberriak baizik.

Elkarrekiko mendetasun-erlazioan adibidez, honako hau aipatu daiteke: edukitzailea edukiaren ordeztzen da (“baso ttipi bat edan dut”, basoak ez baitira edaten, haren edukia baizik: kafea edo ura). Elkarrekiko mendetasun horretan alderantziz ere esan daiteke: edukitzailearen ordeztzen da edukia aipatzea (“kafe bat hartu eta ekarri hona!” kafearen kikara esan beharrean, kikan dagoen kafea “edaten” baita, eta “kikara” da hartzen dena.

Metaforan antzekotasun edo analogia erlazioa –edo adiera erlazioa– dago, eta metonimian,

aldiz, erlazio erreala dago. Baina askotan metafora eta metonimia, biak batera, ager daitezke. Horrela, bada, “Bruselako gailurra” ez da Bruselan dagoen mendi tontor bat, baizik eta hiri horretan egiten den bilera garrantzitsu bat.

• Sinekdokea:

Sinekdokea, metonimia bezala, aldamenekotasun-erlazioan oinarritzen da; baina sinekdokean kantitate-erlazio bat dago bi aldean artean, hots, partetik osotasunera, abstraktutik konkretura edo partikularretik orokorrera (edo alderantziz ere bai).

Hona hemen zenbait adibide:

a) Gandiagaren honetan, singularra pluralaren ordez dago, bai eta espeziea (hau da, euskal-

duna) generoaren ordez: “Euskaldunak dirurik / egiten du baina euskararik ez”.


b) “Bortzetan elki deitadazüt hasperenak” dio Etxahun-Iruriren “Agur Zuberoa” kantuak. Hemen “bortzetan” zenbakiak “askotan” esan nahi du, hau da parte bat osotasunaren ordez.

c) “Euskal mutilak gaude herriaren alde / bihoztean odola arimaren pare.”

Gabriel Arestiren adibide honetan, “mutilak” gazteria da (hau da, gazte guztiak, neskak zein mutilak). Hitz konkretu bat erabili du abstraktu baten ordez. Bestalde, “Herria” hitzak Euskal Herria esan nahi du. Hemen alderantziz jokatu du: hitz abstraktu edo orokorrago bat erabili du *Euskal Herria* konkretua erabili ordez.

Iturria: Euskaltzaindiaren Literatura Terminoen Hiztegia (moldatua)

b) Azalpena entzun ondoren, osa ezazu eskema hau:



c) Baieztapen eta definizio hauetatik zein dira egiazkoak eta zein faltsuak:

Definizioak	
a) Hitzaren jatorrizko <u>adieratik urruntzen</u> dira tropoak.	gezurra
b) Tropoak eta figura erretorikoak bereizi behar dira (Tropoak figura erretorikoen azpimultzo bat dira eta).	egia
c) Bi osagairen artean dagoen antzekotasunean oinarriturik, errealitate bat beste baten izenarekin ordezkatzeko duen prozedura literarioa da metafora.	egia
d) Metaforan antzekotasun-erlazioa (edo analogia-erlazioa edo adiera-erlazioa) dagoela eta metonimian, ordea, erlazio erreala dagoela esan ohi da.	egia
e) Sinekdoke izeneko tropoak hitz osoak erabiltzen ditu hitzen parteak erabili ordezkari (GEZURRA). Sinekdoke izeneko tropoak osoa parte batetik abiatuta ezagutzen dela adierazi nahi du (EGIA).	gezurra
f) Metonimia <u>kantitatean</u> oinarritzen da; sinekdokea, berriz, kalitatean.	gezurra
g) Metaforaren bidez ideia bat azaltzen da beste ideia baten adierazpidea erabiliz, bien artean nolabaiteko lotura dagoelarik.	egia
h) Metafora hitz batek ohikoa <u>ez</u> duen testuinguruan erabiltzen da.	gezurra

Irakaslearentzako ariketa osagarria:

Ikasleak talde txikitik bildurik, “b)” ariketako taulako figuren definizioak bila ditzakete, eta, jarraian, elkarri galdetzeko lehiaketa moduko galdeketa bat egin.

Definizioak:

Hitzezko figurak:

- Hiperbatona: Perpauseko elementuen ordena arrunta aldatzea da.
- Antitesia: Perpaus berean hitzen edo pentsamenduen kontrajarpena edo kontrastea adierazten duen figura, kontrajarrita daudenek egitura simetrikoa osatzen dutela. Hiztegian, antonimoetan agertzen da antitesia.
- Aliterazioa deitzen diogu gertu dauden egituren edo hotsen errepikapenari.
Trinkili trankala ari gara
trinliki trankala betikoan (Gandiaga)
- Anaforak errepikapena esan nahi du. Lerroen hasieran edo esaldien hasieran hitz bat edo gehiago errepikatzea da, funtsean.
- Errima deritza, orokorrean, poema bateko bi neurtitz edo bertso lerroren edo gehiagoren amaierako silaba bat edo gehiagoko fonemen arteko hosiartetasunari. Errima, hortaz, beti lerroaren amaieran kokatzen da, lerroen arteko etenaldiaren aurretik.

Pentsamendu-figurak:

- Epitetoa: erretorika klasikoak termino hori erabiltzen du mota bereziko izenondo kalifikatzailea adierazteko, zeinak azpimarratzen baitu berez substantiboan inplizituki doan nolakotasuna. Adibideak: “elur izoztua”, “gau iluna”, “su beroa”.
- Pertsonifikazioa edo prosopopeia izenarekin ezagutzen da erretorikazko figura bat, zeinean bizigabeei, animaliei edo kontzeptu abstraktuei gizakien portaera eta ezaugarriak egotzen zaizkien.
- Eufemismoa: hitz bat egokia ez denean jendaurrean erabiltzeko, horren ordezkari hain gogorra ez den beste bat erabiltzen da. Esaterako, “mozkortuta” esan beharrean “edanda” esatea. Normalean eufemismo baten azpian tabu bat egoten da, hau da, publikoki aipatzea gaizki ikusita dagoen hitz bat.

- Hiperbolea: Testuingurua kontuan hartuta, gehiegizko adierazpidea da, eta, beraz, ez da hitzez hitz hartu behar, baizik eta adierazpidearen norabidea edo zentzua ulertu behar da. Adibidez: Munduko surren surrik surrena! ikusi danik sur andiena! sur Elefante, surtzar Balaia, sur Himalaya! (E.M. Azkuek “Surr bateri”)

Figura semantikoak (aurreko ariketetan azaldutakoak): metafora, metonimia, sinekdokea.

4. Sailkatu

Sailka itzazu tropo hauek taula hau betetzeko, adibideetan bezala:

Metafora	Metonimia	Sinekdokea
<p>Gaztaro, eder dan lorea, eugaz yabilk mutil-kantea ta neskatxen dantzaketea.</p> <p>(Lauaxeta)</p> <p>[Gaztaroa = lore ederra]</p>	<p>Arteak diruari jarraitzen dio.</p> <p>[Artea = artistak; dirua = aberastasuna, irabazia (konkretuaren orde, abstraktua)]</p>	<p>Mila urte igarota, ura bere bidean</p> <p>(Garibai)</p> <p>[Zenbatzaile zehaztua, zehaztugabeko baten orde: Mila (enfatikoa) = asko]</p>
<p>Oriok irabazi du estropada.</p> <p>[tokia = bertako biztanleak (hurbiltasuna). Metonimia]</p> <p>Oharra: hainbatek adibide hori sinekdoketzat hartzen dute orokorragoa baita “Orio” hiria bertan bizi diren biztanleak baino.</p>	<p>lgande goiz au landa-gain dager –egal urdiñak dardarka airian.</p> <p>(Lauaxeta)</p> <p>[Hegal urdina = zerua. Metafora]</p>	<p>Eguneroko ogia kostata irabazten da.</p> <p>[Ogia = Jatekoa, jana (generoaren orde espeziea). Sinekdokea]</p>
<p>Hiri honetako jantzia udazken honetan lanbroa da.</p> <p>(Atxaga)</p> <p>[Lanbroa eta jantziaren arteko antzekotasuna. Metafora]</p>	<p>Adinarendako sendabelarrik ez.</p> <p>[sendabelarra (espeziea) = medikamendua, sendabidea (generikoa). Sinekdokea]</p>	<p>Luma zorrotza.</p> <p>[Luma zorrotza = idazlea (tresna, berorren erabiltzailearen orde). Metonimia]</p>
<p>Gizakia gaur libreago bizi da.</p> <p>[gizakia (partikularra) = pertsona guztiak: gizonak zein emakumeak (espezie osoa, generikoa). Sinekdokea]</p>	<p>Errioxa bat edan zuten ospakizunean.</p> <p>[Errioxa = Errioxako ardo bat (ekoizte tokiaren orde, ekoizpena). Metonimia]</p>	<p>Zenbat neke-ots, zenbat oyu! Lurrera jausten dira itzalak,</p> <p>(Lauaxeta)</p> <p>[Itzalak lurrera jausi = itzalak lurrean islatzen dira. Metafora]</p>

5. Irudizko metaforak

Binaka jarrita, azal iezaiozue elkarri zer iradokitzen dizuen irudi bakoitzak.

Adibidez, René Magritte (1935) margolariaren irudi honek oinak oinetako bihurtzen ditu (metafora), eta oinek (atal bat), aldi berean, giza gorputza (osotasuna) irudikatzen dute (sinekdokea).

- Orain azter itzazu irudiok. Zer adierazten dute? Eta nola?

(Erantzun librea)

6. Hainbat olerki



BIZKAIA MAITE

a) Osatu informazio hau:

Jose Angel Irigaray idazlea Iruñean jaio zen, 1942an. Kulturgintzan murgildua, hainbat ekimen eta el-karteren sustatzailea izan da: Ez Dok Amairu, Aranzadi, Nafarroako Ikastolak, Billboko Kafe Antzokia, Oteiza Fundazioa, Pamiela argitaletxea... Literaturaren arloan, saiakerak, narrazioak eta poesiak idatzi ditu.

Irakaslearentzako informazio osagarria:

Auñamendi Eusko Entziklopedia: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/69879>

Poeta navarro nacido en Pamplona el 9 de octubre de 1942.

[José Ángel Irigaray Imaz. Ref. Habe, n.º 62]

Nieto del cirujano y escritor Fermín Irigaray "Larreko" y del igualmente médico y hombre de letras Aingeru Irigaray "Apat-Etxebarne". Licenciado en Medicina, ha ejercido esta profesión hasta que, en 1996, pasó a encargarse de la programación cultural del centro Kafe Antzokia de Bilbao, y por esas mismas fechas se convirtió en miembro del equipo editorial de la casa Pamiela, con la que venía colaborando desde hacía muchos años. Fue miembro del grupo Ez Dok Amairu, y lo es también de la Fundación Oteiza, encargada de gestionar el legado del escultor Jorge Oteiza.

Ha publicado los libros *Bizi minaren olerkian* (Edit. Pamiela, 1986) y *Urdinkara* (Edit. Pamiela, 1995). Sus poemas han sido musicados en numerosas ocasiones por Benito Lertxundi; por ejemplo: *Urak dakarrena*, *Oi Zuberota!*, *Orbaizetako arma olaren kantua* y *Bizkaia maite*.

En el año 2001 publicó una antología en la colección *XX. mendeko poesia kaierak* (Edit. Susa), y en el prólogo de la misma Koldo Izagirre decía que la poesía de Irigaray "es un gran intento por expresar la navarritud" y apreciaba en esa obra poética una "saudade nacional". Irigaray se muestra dolido por la situación del euskera en Navarra y por el retroceso del Viejo Reino, reivindicando un pueblo "que no esté a merced de cualquier viento". Según Izagirre, Irigaray vive en un "exilio interior", de ahí que use tantos topónimos y nombres antiguos y referencias a tiempos pasados, si bien el poeta nostálgico no mira sólo hacia atrás, sino que se siente preocupado por el futuro del País Vasco y su lengua.

En 2002 publicó el poemario *Joan-Jinaren labirintoan*, en el que recopila sus poesías escritas entre 1995 y 2000.

Irigaray ha escrito libros de reflexión sobre la normalización social del euskera, como *Euskara bizitzaren kenkan*. *Orekaren mintzoa* (Edit. Pamiela, 1988); y también libros de narraciones breves como los titulados *Gauerdiko ele galduak* (Edit. Elkar, 1985) y *Denboraren muga* (Edit. Pamiela, 2005). Además, se encargó de la publicación de las reflexiones de su padre cuando estalló la guerra civil de 1936-1939. Aquel libro se tituló *Gerla urte, gezur urte* (Edit. Pamiela, 1993).

En 2010 fue nombrado académico de honor de Euskaltzaindia.

b) Orain arte ikasi duzuna kontuan harturik, bila itzazu olerki honetan agertzen diren figura erretorikoak.

Adibidez:

- Metafora: “soineko zuriz jantzia” (ihintza edo behe-lainoaren irudikapena, lainoak jantzi batek bezala estaltzen baitu lurra).
- Metafora: “buruan orlegi, bihotzean sua” (burua = goiko aldea, mendiak; bihotza = barneko aldea, lur azpia, meategiak, burdina: sua = kemena, indarra).

- Alegoria: “soineko zuriz jantzia, / buruan orlegi, bihotzean sua” (Metafora jarraitu moduko bat: irudi edo sinbolo multzo literario koherentea).
- Prosopopeia edo pertsonifikazioa: Bizkaia bera emakumetzat hartzen du, eta horrela deskribatuta dago.
- Metonimia: “nire gogoa” (pentsamendua).
- Enumerazioa: “zure usain gozoa, lana, / amodioa, itsasoa”.
- Sinekdokea: “arbasoen baratza” (Euskal Herria); “aterpe” (babestokia). Bietan konkretua erabili du abstraktuaren ordez.
- Epitetoa: “burdinaren gorria”; “gatzaren bizia”; “soinekoz jantzia”; “bihotzean sua”...
- Graduazioa: “jauzika, hegaka”.
- Sinestesia: “...entzun nuen ... zure kantaren fereka, bihotzean kilika” (Zentzumenen pertzepzio-nahasketatik sorturiko tropo figura mota berezia adierazten du, hau da, zentzumen bati beste baten ezaugarriak esleitzea da).
- Anafora: “zure berba leun, / zure gatzaren bizia, zure burdinaren gorria” (lerroen hasieran edo esaldien hasieran hitz bat edo gehiago errepikatzea).

LAGUNAREN HERIOTZA

- Binaka, azter ezazue nor den lapurra eta zer gertatu den gau horretan.
Lapurra herioa da, eta idazlearen laguna eraman du, hots, gau hartan Luigiren lagun bat hil zen (Jose Mari Garmendia) eta hari eskaini zion olerki hau.
- Nolako lapurra da?
Lapur trebea eta zitala da, baina ez da ohiko lapurra, ez baitu harribitxirik edo dirurik nahi, beste “era bateko” altxorak bilatzen ditu: inoren bizitza.
- Zer da altxor preziatuena?
Lagunaren bizitza, behin hilez gero ordezkazina dena.
- Nola zegoen gordeta altxor hori?
Lagunek babestua.

Irakaslearentzako informazio osagarria:

Euskal Literaturaren Ataria: [basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com) (<http://www.basqueliterature.com/es/Katalogoak/egileak/anselmi>)

Luigi Anselmi

Escritor en euskera y castellano, nacido en Bilbao (Bizkaia) en 1954.

Estudió Filosofía y Filología Inglesa, y residió en Inglaterra durante algún tiempo. Autor de poesía y traductor literario, también trabaja como profesor.

Ha publicado estos libros de poesía, todos en la editorial Pamiela: *Zoo ilogikoa* (1985), *Cuando arde el agua* (1988), *Desiriko alegiak* (1988) con el que obtiene el premio Xalbador Saria ex aequo con Patziku Perurena, *Bacchabunda. Catulusen omenez* (1993 y 1994), *Una botella al mar* (1995), *A la orilla del tiempo* (1998), *Gure ametsen gerizan* (2000), *Gau ertzekoak* (2004), *Bertzerenak* (2006), *Nola elurretan beleak* (Pamiela, 2008), *Siete poetas vascos* (2009), *De la nada al olvido* (2013).

Ha realizado estas traducciones literarias al euskera: *Woyzeck-ren kondaira* de Georg Büchner (Iru, 1989); *Azeri harrigarria* de Roal Dahl (Alfaguara, 1991); *Maizter misterioitsua* de J.S. Le Fanu (Erein, 1991); *Lurrerako atari gisa* de E. Apodaka (UPV/EHU, 1991); *Vanpiroa* de John W. Polidori (Erein, 1993), *Nabarra* de C. Day Lewis (Idatz & Mintz, 2004).

En opinión del crítico Jon Kortazar (Revista Egan, 2001), este poeta prefiere la elegía, y se destaca por el tono menor de sus textos y por la influencia del dialecto suletino, pese a nacer y residir en el otro extremo de Euskal Herria.

7. Olerki galduaren bila

Idatz ezazu gehien maite duzun olerkia, eta, ondoren, idatz ezazu labur-labur zergatik aukeratu duzun:

– Zergatik duzu gogoko?

– Zer iradokitzen dizu?

– Zer sentazio edo sentimendu sorrarazi zizkizun lehenengoz entzun zenuenean?

(Erantzun libre)

4.2. LEXIKOA

1. Zenbait figura erretoriko

a) Asma ezazu definizio bakoitza zein figura erretorikori dagokion, beheko taulan dauden hitzak erabiliz.

- Errepikapen-figuretako bat da, hots, errepikapenean oinarritzen den baliabidea. **Aliterazioa**
- Errepikapen-prozeduran oinarritzen den hitzezko figura da: testu zati batean, elkarren segidako enunziationen hasieran hitz bat edo gehiago errepikatzean datza. **Anafora**
- Perpaus berean hitzen edo pentsamenduen kontrajarpena edo kontrastea adierazten duen figura, kontrajarrita daudenek egitura simetrikoa osatzen dutela. **Antitesia**
- Hitzeko figuren artean sailkaturiko egitura-figura bat da; zehazki esanda, *inversio* mota espezifiko bat da: esaldiko elementuen ordena ez da ohikoa; hizkuntzaren ohiko egitura morfosintaktikoa aldatu egiten da, helburu estetiko, baina ez semantikoz. **Hiperbatona**
- Poema bateko bi neurtitz edo bertso lerroren edo gehiagoren amaierako silaba bat edo gehiagoko fonemen arteko hoskidetasuna. **Errima**

Iturria: Euskaltzaindiaren Literatur Hiztegia (moldatua)

b) Asmatuko zenuke behean agertzen diren poema zatietan zein figura erretoriko erabiltzen den? Erabili taulan agertzen diren figura erretorikoak, eta arrazoitu zure erantzuna.

(a) Konparazioa (b) Metafora (c) Sinestesia (d) Errima

2. Hitz elkartuak

a) Osa itzazu hitz elkartuak eskuineko eta ezkerreko zutabeetako hitzak erabiliz.

Industria Iraultza, Sobiet Batasuna, Britainia Handia, Trenbide-sarea, Lurrun-makina, Eurogunea, Mundu Gerra, Austria-Hungariako Inperioa, Gerra Hotza, Europar Batasuna.

b) Sailka itzazu aurreko ariketan osaturiko hitz elkartuak idazkeraren arabera.

(Aurreko ariketako erantzunetan agertzen da).

c) Euskaltzaindiaren arabera, hitz elkarketan, lehen osagaia osatzen duten sei hitz izan daitezke >a< forma gabeak. Zeintzuk dira? Ondoren, adierazi beheko hitzen idazkera egokia den ala ez, eta hala ez bada, zuzen ezazu.

– Hizkuntz, literatur, kultur, burdin, natur, eliz.

– Hizkuntz gaitasuna, literatura irakaslea, kultur emanaldia, hizkuntza-eskola, burdingintza, natur zientziak, elizbarrutia.

3. Anari, olerkigile eta musikari

– Bila itzazu testuan letra lodian agertzen diren hitzen sinonimoak.

Garai/aro, ostean/ondoren, zeure kontura/zeure aldetik/zeure gain, garrantzia/inportantzia, igarri/nabaritu, kantetan/abestietan, ematen/igarotzen, aditzen/entzuten.

4. Donostia, 2016ko Europako kultur hiriburua

– Aukera ezazu hitzik egokiena hutsuneak betetzeko.

1. Jakinarazi, 2. Proposamen, 3. Hautagaiak, 4. Elkarbizitarako, 5. Izendatzen, 6. Izaera

4.3. MORFOSINTAXIA

Aditz trinkoak: egon, etorri, ibili, joan, eduki, ekarri, eraman, erabili, esan, jakin...

1. Adizkiak

Aurreko tauletan, aditz trinko batzuen orainaldiko eta lehenaldiko formak ikusi ditugu. Alabaina, baldintza, ahalera eta agintera adierazteko ere erabil ditzakegu aditz trinkoak.

a) Elkartu taldeka, eta saiatu *egon, etorri, ibili, joan, eduki, ekarri, eraman, erabili, esan* eta *jakin* aditz trinkoen baldintza, ahalera eta aginterazko formak aurkitzen.

b) Ezagutzen duzu bestelako aditz trinkorik? Adibidez, *eman, etzan, irakin, iritzi, jardun...* Saiatu horiek aurkitzen.

Aditz trinkoen taulak osatzeko, euskarazko gramatika-liburuak edo euskarazko hiztegiak ikus daitezke: Euskaltzaindiaren *Euskal aditz batua* edo *Euskal gramatika laburra*, Adorez *Euskal hiztegia*, Elhuyar *Hiztegi txikia...*

2. Txistu y Tambolin

– Irakurri aditz trinkoei buruzko *Txistu y Tambolin* blog-eko artikulu hau.

– Ondoren, elkartu taldeka, eta erantzun honako galdera hauei:

a) Zer iruditu zaizu blog-ean esandakoa? Benetan ala umorez hartu behar da bertan adierazitakoa? Eta zer deritzozu proposamenari?

b) Bat zatoz “Gazteek haien artean darabilten hizkera erdalkeriaz zipriztinduta dago” adierazpenarekin?

c) Zu zeuk aditz laguntzaileak aditz trinkoak baino gehiago erabiltzen dituzu? Zure ustez, badu horrek garrantzirik?

(Erantzun librea).

3. Aditzaren erabilera

– Aurreko irakurgaiko bi pasarte aukeratu ditugu: lehenengoa K. Eleizalderena da, 1918koa, eta bigarrena X. Amurizarena, 2010koa. Azpimarratu bertan dauden aditzak, eta, ondoren, sailkatu aditz laguntzaileak edo aditz trinkoen multzoan. Bada alderik aditzaren erabileran?

Abertzalea **bazara**, irakurle ori, idazti au txalo ta poz-oyuka **darkezu**, noski. Abegirik gurenena **dagiskeozu**. (...) *Itxarkundia* ta *Mendiko Negarra*, ta beste aunelako zenbait olerki irakurriaz, gure Batzar ta Batzokietako amaikatxo yayaldi ederren oroipen atsegiñak, oroipen ezin gozoagoak gogora galgalka **datorskezuz!** Idazti au, beraz, sarri **dirakurkezu**. (...) Alabere, abertzalea izan ez-arren, olertizalea **bazara, daskeintzugun** idazti au abetalduko dozu.

Aditzekin arazo handiak **dauzkagu**. Aditza elementu bat baino gehiago izaten da askotan. Adibidez “lloras” esateko “negar egiten duzu” erabiltzen dugu. Gure alboko hizkuntzetan silaba bigaz esaten dena, guk zazpigaz esaten dugu, eta hori askotan oztupoa **da**. Askotan gauzak labur esatea behar dugu; titularretan, esloganetan, pelikulak bikoizterakoan, abestiak egiterakoan... aditz luzeak gero eta gehiago erabiltzen ditugu, eta horrek asko mugatzen gaitu. Aditz trinkoak berreskuratzen hasi behar dugu. “Etorriko nintzateke” esan beharrean “**nentorke**” esan genezake. Horrelako formak galtzen **gabiltza**. “**Neroan**” barik “eroaten nuen” esaten dugu, eta hori ez **da** hizkuntza aurreratuen martxa, alderantzizkoa baino.

Aditz laguntzaileak	Aditz trinkoak
abetalduko dozu	bazara darkezu dagiskeozu datorskezuz dirakurkezu bazara daskeintzugun
izaten da negar egiten duzu erabiltzen dugu esaten dena esaten dugu behar dugu erabiltzen ditugu mugatzen gaitu hasi behar dugu etorriko nintzateke esan genezake eroaten nuen esaten dugu	dauzkagu da nentorke gabiltza neroan da

Bai, aldea dago bi irakurgai horien artean. Lehenengoan azaltzen diren aditzak aditz trinkoak dira gehienak; gaur egun, horietako asko zaharkituta daude. Bigarren irakurgaietan, aldiz, aditz laguntzaile-dunen erabilera ugariagoa da, nahiz eta aditz trinkoren batzuk ere erabiltzen dituen.

4. Hutsuneak bete

– 1. unitate honetan, hainbat olerkiren letra irakurri edota entzun duzu. Gogoan hartu horietako batzuk, eta bete hutsuneak parentesi artean zehazten diren aditz trinkoak egoki erabilita.

1. zara / nator
2. dira / diote / da / da / da / daukagu
3. habil
4. zaitut
5. badakite
6. hago
7. neukan
8. doaz (duaz)

5. Osatu

– Aditz trinko batzuen erabilera ez da oso zabala; hala ere, zenbait forma nahiko ezagunak dira. Bete hutsuneak taulako aditz trinkoak erabilia, eta esan zein aditz dagoen bakoitzaren oinarrian (*eman, etzan, irakin, iritzi, iruditu, jardun*).

1. dirudi (iruditu)
2. datza (etzan)
3. deritzozu (iritzi)
4. diraki (irakin)
5. demagun (eman)
6. ziharduen (jardun)

6. Berridatzi honako perpaus hauek aditz trinkoak erabilia

1. Bat zetorren ibilgailu ekologikoen erabilera bultzatu behar zela ziotenekin.
2. Gelan, eskola-garaian telefonoz hitz egitea txarto ikusita dago.
3. Kontu hori ahoz aho zebilen herri osoan.
4. Gaurko egunkariak ez dakarte berri onik.
5. Amorruren amorruez hagin artean madarikatzen zihoan.
6. Zenbat hizkuntza dakizkizu? Bost hizkuntza diozu?

7. Zuzen itzazu aditz trinkoari lotuta egindako erabilera okerrak

1. zeneramatzaten
2. dabilta
3. zegoen
4. gatozela
5. zaudete
6. zekizkien

8. Osatu esaldiak aukeran dituzun hitzak ordenatuta eta aditz trinkoez baliatuta (ordenari dagokionez, aukera bat baino gehiago egon liteke)

1. Beti daramat nirekin Sarrionaindiaren olerki-liburua.
2. Zuk zer edo zer daukazu guri esateko?
3. Irakasleak agindutako liburua irakurrita dakarzue zuek?
4. Egunero zatozte aitzakia berri batekin.
5. Denok gabilta zer egin ez dakigula.
6. Zu aste-goienean Ken Zazpiren kontzertura zoaz? / Zu aste-goienean bazoaz Ken Zazpiren kontzertura?

9. Aditz-lokuzioak

– Oraingo honetan, aditz-lokuzio batzuk dituzu. Elkartu binaka, eta osatu esaldiak aditz trinkoak egoki erabilia. Ondoren, alderatu esaldiok ondoko bikoteak egindakoekin, ea antzekoak diren!
(Erantzun librea).

4.4. MUNDUKO HIZKUNTZAK ETA KULTURAK

Europa: katalana

1. Hausnarketa

Taldetan bildurik, irakur ezazue honako testu hau, eta erantzun galderei:

(Erantzun librea)

Talde bakoitzak bere iritziak azaldu ondoren, poster batean jarriko dira ikasgelan emaitza nabarmenak.

2. Hizkuntzen mundua

- Launaka jarrita, irakur ezazue artikulua bana, eta, jarraian, kontatu elkarri.
- Guztion artean jasotako informazioa erabiliz, egin horma-irudi bat A3ko orri batean. Irudiak eta ideien laburpenak jar ditzakezue bertan.



3. Katalanez hitz egin

- Entzun banan-banan honako esaldi hauek, eta saia zaitez, entzun ondoren, horietako bakoitza errepi-katzen.

4. Lotu

a) Lot itzazu elkarrizketak dagokien irudiarekin.

b) Euskara itzazu elkarrizketak.

A = 5 - Hola! Com et dius?

- Em dic Jordi. I tu?

- Jo em dic Neus.

- Kaixo! Nola duzu izena?

- Gorka dut izena. Eta zuk?

- Nire izena Edurne da.

B = 4 - Hola, Jordi! Com va, això?

- Bé. I tu, Neus?

- Molt bé, gràcies!

- Kaixo, Gorka! Zelan zaude?

- Ondo. Eta zu, Edurne?

- Oso ondo, eskerrik asko!

D = 1 - Adéu, Neus!

- Adéu, Jordi! Fins demà!

- Agur, Edurne!

- Agur, Gorka! Bihar arte!

E = 2 Carme: Andreu, et presento l'Elvira.

Andreu: Hola!

Carme: Aquest és en Andreu.

Elvira: Què hi ha?

Karme: Ander, hau Elvira da.

Ander: Hola!

Karme: Hau Ander da.

Eugenia: Zer moduz?

F = 6 - Hola, Maria. D'on ets?

- Sóc de Girona. I tu Lluc?

- Jo sóc de Tarragona.

- Kaixo, Miren. Nongoa zara?

- Gironakoa naiz. Eta zu, Lukas?

- Ni Tarragonakoa naiz.

G = 3 - Què està fent, la Carme?

- Està mirant la televisió.

- Zertan ari da Karme?

- Telebista ikusten ari da.



5. L'estaca

– Ezagutzen duzu Lluís Llach-en kanta hau?

– Eta Gorka Knörrek euskaraz egindako bertsioa edo Betagarrirena?

– Irakurri ondoren, entzun itzazu bertsio biak. Zein duzu gogoko? Zergatik? Zure ustez, bat datoz musika eta letra bertsio bietan?

5. SORTU

ABESTI BAT ERALDATU ETA EGOKITU

SORTU proiektua egiteko informazio eta urrats guztiak ikaslearen liburuan daude, ondoko oharrak izan ezik.

1. URRATSA: Zeregina
2. URRATSA: Ereduak aztertu



Wazemank: *Larri-larri*

– Entzun ezazue egokitutako bertzio hau eta erantzun galderai:

- Zein abesti hartu dute oinarri?

Kortatu taldearen “Sarri, Sarri”

- Zer dakizue kantariez?

Kortatu ska-punk musika taldea izan zen. 1984ko udan Irunen osatu zen. Hasiera batean Euskal Rock Radikal labelpean kokatu zuten arren, *Kortatuk* sailkapen guztien aurka egin zuen. *The Clash* talde britaniarra haren oinarrietako bat izan zen. Lehenengo diskoetan euskaraz eta gaztelaniaz abesten zuten, baina azkena euskara hutsean dago. Zentsura ere jasan behar izan zuten, batez ere Juan Carlos I erregea robot bezala atera nahi zutenean. *Public Enemy*-k Parisen emandako kontzertu baten ostean, 1988an, taldea desegiteko erabakia hartu zuten. Muguruza anaiek *Negu Gorriak* sortu zuten orduan.

Taldeakideak: Fermin Muguruza, Iñigo Muguruza, Mattin Sorzabalbere, Treku Armendariz, Kaki Arkarazo.

- Badute antzik bertzio biek, originalak eta egokitzapenak?

Gaiek ez dute antzik. Soinu eta hotsekin jolasten dute: Sarri/Larri: bertso/lerroen luzera, errima-puntu bera lerroaren amaieran, hitzak eta esaldi zati berberak.

- Zertaz ari da abesti originala eta zertaz egokitzapenak?

Abesti originalak kontatzen du Joseba Sarrionandia idazleak nola egin zuen ihes espetxetik. Egokitutako bertzioak, berriz, gazteen arazoak tabernetako komunetara joateko tabernak gainezka daudenean.

- Ezagutzen duzue beste bertsiarik?

Trikizio taldeak *Sarriren* bertzio bat egin zuen katalanez eta euskaraz.

Oharra: Ariketak amaitutakoan bertzio guztiak entzun eta alderatu ahal dituzte.

Sarri, Sarri (Kortatu)

Ez dakit zer pasatzen den
azken aldi **hontan**
jendea hasi dela dantzatzen **sarritan**
zerbait ikustekoa du
bi falta direlako
«Recuento **generalean**».

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,
Sarri, Sarri, ..., Sarri, bi batu.

Larri, larri (Wazemank)

Ez dakit zer pasatzen den
larunbat **gauetan**,
komunak beteta daudela **tabernetan**.
Azkar libratzen ez bada,
betiko moduan,
egingo degu kale **bazterrean!!!**

Larri, larri, larri, larri, larri, larri,...
...
... ... pixaliak nabil

Irratikoak han **ziren**
emititzen **zuzenean**
paella jango zutela
eta Piti eta Sarri bere muturretan
saltsan zeudela konturatu gabeak.

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri.

Zaila dugu sortzea
doinu gozoagorik
Sarri dio herriak
txanpainaz ospaturik
Iruñeko entzierroa
desentzierroa hemen
zapi gorriak
zerua du estaltzen.

Ez dakit zer pasatzen den
azken aldi hontan
jendea hasi dela dantzatzen sarritan
zerbait ikustekoa du
bi falta direlako
«Recuento generalean».

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi batu

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi badoaz,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, hanka kalera
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bafleetatik...
kriston martxa dabil!

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi batu

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi badoaz,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, hanka kalera
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bafleetatik...
kriston martxa dabil!

Orduan sartu **ginen**
kuadrila **komunean**,
libratu zan azkenian.
Hori disgustua, hartu genuena,
Neskeena zala konturatu ginanian

Larri, larri, larri, larri, larri, larri,...
...
... .. ni banoa!

Ez dakit zer pasatzen den
larunbat **gauetan**,
komunak beteta daudela **tabernetan**.
Azkar libratzen ez bada,
betiko moduan,
egingo degu kale **bazterrean!!!**
Larri, larri, larri, larri, larri, larri,...

3. URRATSA: Aukeratu gaia eta tonua
4. URRATSA: Egokitu abestiaren letra
5. URRATSA: Erabaki abestia nola grabatu
6. URRATSA: Grabatu eta editatu abestia euskarri informatikoan

EBALUAZIOA

ZER IKASI DUT?

1. Aukeratu erantzuna zure iritziaren arabera eta burutu jarduerak.

1. Zer da olerkia?
 - a) Ulertzeko zaila den testu idatzia.
 - b) Jende arraroari gustatzen zaion zerbait.
 - c) Abestiak sortzeko lehen pausua.
 - d) Hitz arrotzez osatutako konposizio idatzia.
 - Idatzi hautatutako erantzunaren arrazoia.
 - Konparatu zure erantzuna ikaskideenarekin.
2. Zer da gregeria?
 - a) Eguneroko bizitzako gertakariak adierazteko era dibertigarria.
 - b) Idazteko beste era bat, baina oso arraroa.
 - c) Jarrera inkonformista adierazteko modua.
 - d) Ez dut oso ondo ulertzen zer den gregeria, beraz, ez dut iritzirik.
 - Idatzi gehien gustatzen zaizun gregeria bat.
3. Zer da kaligrama?
 - a) Poema bisuala da, irakurtzeko oso zaila.
 - b) Poesia modernoa da, oso entretenigarria.
 - c) Forma berezia duen testu modernoa da.
 - d) Neurri jakin batekin idazten den poema originala da.
 - Erantzun galdera hauei:
Zer da zailagoa, kaligrama bat sortzea ala ulertzea? Zergatik?

2. Hartu orri zuria eta boligrafoa, eta idatzi gai honetan ikasi duzunaz burura etortzen zaizun guztia, horrela, idazketa automatikoa praktikan jarriko duzu. Ondoren, lotu ideiak eta konparatu zure ikaskideak egin duenarekin, eta erantzun:

- Badago antzekotasunik? Zertan?
- Zer atali buruzkoa da gehien gogoratzen duzuna? Eta gutxien?
- Zer falta zaizu ikasteko?

3. Abestu zurea ez den hizkuntza batean, eta sortu abestien bilduma.

Hainbat abesti daude munduan zehar hizkuntza ezberdinetan, adibidez hauxe:

Canta el gall

Cada dia al dematí
canta un gall quiquiriquí
i la gent mig adormida
es desperta de seguida.
Cada dia al dematí
canta el gall quiquiriquí.

Abesti hau nola kantatzen den jakiteko honako web orrira jo dezakezu:

<http://www.mamalisa.com/?t=ss&p=291&c=45>

Ondoren, bilatu hizkuntza ezberdinetan dauden abestiak, ikaskide bakoitzak bat bilatuko du eta ikasgelako hizkuntza ezberdinetako abestien bilduma sortuko duzue!